

UKRAINATIK HARAGO: Afrikan eta Ekialde Hurbilean gerra zerrenda luzea bezain ahaztua da > 4

KOADERNOA

Legeak katuen baretasuna asaldatzen duenean **XABIER IZAGA GONZALEZ > 21**

2023ko otsailaren 25a | XVII. urtea • 814. zenbakia
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



LOURDES HERRASTI; HERIOTZA IKERTU, BIZITZA DESKUBRITZEKO > 12

Andoni CANELLADA | FOKU



4



18



Ukrainatik harago: Afrikan eta Ekialde Hurbilean gerren zerrenda luzea bezain ahaztua da 04

Ikusmira: Talion Legearen sorterrian asimetria 09

Lourdes Herrasti: heriotza aztertu biziak deskubritzeko 12

Tortibilbo, tortilla dastatzaile baten ibilerak Bilbon 18

In fraganti: Maria Intxaustegi, itsasoaren amorante 22

Aztarna ekologikoa: 360 ppm-tan jaioa 28

Antipostureoa, modan: BeReal aplikazioak argazki natural eta espontaneoak saritzen ditu 29

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



22



29

SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Kultur gertakariak eraikitzekeko materiala
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:** Lehenesten
- 11 **Iñaki Altuna:** «Egunkaria»ren itxieratik M11-ko gezurretara
- 17 **Amaia Ballesteros**
- 20 **Itziar Elizondo Iriarte:** SOS, deitu egin behar dut
- 21 **Xabier Izaga Gonzalez:** Legeak katuen baretasuna asaldatzen duenean
- 27 **Miren Azkarate Badiola:** Kitaro Caravansary-ren erritmora
- 27 **Asier Aiestaran:** Irribarria eta irribarrea
- 30 **Miren Bermejo Llopis:** «Bike sharing», mugikortasun jasangarria gure hirietan



{ datorrena } Iñaki SOTO

Kultur gertakariak eraikitzekeo materiala

Eider Rodriguezen "Eraikuntzarako materiala" ren gaztelaniazko itzulpenaren lehen edizioa astebetean agortu da. Nire ikuspuntutik, nobela hori kultur gertaera bat izatera deitua zegoen. Orain arte, ez da izan. Gurea ez bezalako kultur sistema ez-minorizatu batean edo dimentsio handiagoko sistema batean, lan hori beste era batean igaroko zen; indartsuago, agian.

Jakina, Rodriguez emakumea dela ezin da ekuaziotik atera. Feminismoaren aurrerapenak gorabehera, sistema honetan emakume bat nekez izan daiteke gertakari kultural baten protagonista gorena. Jende askok ez du irakurtzen, eta oraindik ere badago emakume idazlerik irakurtzen ez duen jende asko. Arrakala eremu guztietan dago, salbuespenik gabe.

Nolanahi ere, ez dirudi "Eraikuntzarako materiala" kasu isolatua denik. Aita Santuak "Hermanito" gomendatu behar izan zuen fedegabe askok Amets Arzallusen eta Ibrahima Balderen bitxia irakur genezan. Jon Benitoren "Lagun minak" zain dago. Ez da literaturarekin bakarrik gertatzen. Nola bideratu jendea "Anonyme Popular" ikustera? "Kantu bat gara"-k lortu du, baina Jon Maiak abesten dion beste komunitate horri mezua heldu zaion ez dakit. Aldi berean, gure ekoizpen musikala neurrigabea da. Atzo estreinatu zen "Irati" edo "Black Is Beltza II: Ainhoa" bezalako ekoizpen zinematografikoen meritua itzela da. Gastronomian, Arrea!-ri edo Amari kanpoan egindako aitoren bultzada handia eman diete, eta ez da lehenago jatetxe horien bertuteak nabarmendu ez ditugulako hemen.

Ez dut uste kultura nagusiaren onarpenarekin bakarrik zerikusia duenik. Literaturan, euskarazko 'supersalmentez' ari gara. "Miñan"ek, hezkuntza sistemaren bultzada alde batera utzita, ezin ditu askoz liburu gehiago saldu. Berdin "Eraikuntzarako materiala"rekin. Gure mugak ez dira soilik politikoak eta kulturalak, fisikoak eta

demografikoak ere badira. Botere desoreka eta mende-kotasunarekin lotutako arazoak baztertu gabe –uzi nazionala, hizkuntzarena, generoarena...–, gure diagnostikoan eskalaren auzia sartu behar dugula uste dut.

Esan bezala, beste auziak baztertu gabe. Izan ere, elkarriketaren batean, Rodriguezen eleberria espainiar emakumeen narratibaren barruan kokatzeko grina ikusten da kazetarien aldetik, Espainiako belaunaldi baten isla gisa. Sara Mesa edo Lara Moreno aipatzen dira, eta ez Karmele Jaio edo Katixa Agirre. Txani Rodriguez edo Edurne Portela ere hor leudeke, adibidez, irizpidea hizkuntza balitz. Nire kezka aitortzen dut: gu gertakari

Gu gertakari kulturalak sortzeko kapaz ez bagara, beste batzuek sortuko dituzte, gure materialekin. Eta zilegiak izango dira, baina gure kulturaren eta herriaren interesekin zerikusirik ez dute izango

kulturalak sortzeko kapaz ez bagara, beste batzuek sortuko dituzte. Eta zilegiak izango dira, baina gure kulturaren eta herriaren interesekin zerikusirik ez dute izango.

Ohiko erantzun sinplistan, irtenbidea gaztelania erabiltzea da. Ez da nire ikuspuntua. Adibidez, une batez "Eraikuntzarako materiala" ez zela itzuliko pentsatu nuen, eta ez zitzaidan gaizki iruditzen –itzulpena egitea ondo iruditu zaidan bezalaxe–. Beste ohiko erantzun sinplistan, irtenbidea gaztelania eta frantsesa ez erabiltzea da. Ez dut idealismoan sinesten, «balitz bezalako...» eskema horietan. Gure eginkizunetako bat, hain zuzen, gertakari izaera merezi duten sorkuntza lan horiek bultzatzea da. Lortzen dugunean, asmatu dugu; ez dugunean lortzen, zergatik jakin behar dugu. Hau guztia, kultur gertaerak ezin direla diseinatu jakinda, ezta eraikuntzako materialik onena duzunean ere. •

UKRAINATIK HARAGO

Afrikan eta Ekialde Hurbilean gerra zerrenda luzea bezain ahaztua da

Errusia Ukraina inbaditzen hasi zeneko lehen urteurrena atzo bete zela eta, bidezkoa da munduan aspaldi beste gerra batzuk daudela eta sufrimendua eragiten dutela gogoratztea. Azken urtebetean arreta politiko eta mediatiko globala hartu du Ukrainako gerrak, batez ere Mendebaldean, eta ez arrazoirik gabe. Inoiz ez genuen pentsatuko I. edo II. Mundu Gerraren irudi izugarriak Europan errepikatuko zirenik, ikusten –eta pairatzen– ari diren ondorioekin.

Baina mundua ez da Europan edo Mendebaldean agortzen, eta Ukrainako gerraren

GATAZKAK / Dabid Lazkanoiturburu

Urtebete daramagu Ukrainako gerrak astinduta eta luze jo dezakeela dirudi urteurren honetan. Badira, ordea, beste zenbait gerra; batzuk odoltsuagoak (Etiopiakoa, kasu), luzeagoak (Kongo), ahaztuak (palestinar eta saharar herriak pairatzen ari direnak) edo hil hasierako lurrikarak gogora ekarri diguna (Siria).

itzalean, dozenaka milioi pertsona bizi dira –kasu askotan, baldintza ikaragarrietan irauten dute bizirik– Errusia moduko potentzia nuklear bat bete-betean inplikatzeko ez duten baina eragin basatia duten beste gatazka batzuen mende.

Kiel institutuak bildu dituen datuen arabera, Mendebaldeko herrialdeek 100.000 milioi euro baino gehiagoko dirulaguntza, militarra eta humanitarioa, eman zioten Ukrainari, eta Europar Batasunak atek ireki dizkie herrialde ho-

Gosea jendearen aurpegietan, Jerson hirian, Ukrainan, errusiarrek alde egin ostean.
BULENT KILIC | AFP

rretatik datozen errefuxiatuei. Beste gatazka batzuei eta horiek bultzatuta ihes egiten dutenei eskaini izan zaien arreta eskasa kontuan hartuta, kontrastea izugarria da. Nahiz eta ulergarria den europarrok ukrainarren ezbeharrak gertuagokoa ikustea, bere garaian bosniarren ikusi genuen bezala (musulman batentzat beste musulman batzuen tragedia gertuagokoa den moduan).

Ukrainako gerraren pisuak hainbat modutan eragiten du beste gerra batzuetan. Lehenik, mugagabea ez den arreta politiko eta mediatikoa gutxituz. Hegoaldean, batez ere Afrikan eta Ekialde Hurbilean, frustrazioa da nagusi Mendebaldeko Ukrainarekiko duen jarrera ikusita. Eta hori gutzia gutxi balitz bezala, Errusiaren eta Ukrainaren –hots, Mendebaldearen– arteko gatazka areagotu duen hornidura krisialdiaren eraginez, bizitzaren kostua izugarri igo da mundu osoan. Baina gure artean horrek erosketa saskia garestitzea suposatzen badu, herrialde txirotuenetan, bereziki gerrak pairatzen dituztenetan, hil ala biziko kontua da; jatekorik izan ala ez, alegia. Somaliaren kasua da. Jakien %90 kanpotik erosten duen herrialdean gosetea izugarria da.

BESTE KRISI BATZUK OKERRAGO

Hori gutxi ez, eta Ukrainako gatazkan potentzien arteko harremanak gaiztotzeak beste krisi batzuk areagotu ditzake; esate baterako, Sirian edo Sahelen, non Errusiak gero eta zeresan handiagoa duen.

Ekialde Hurbileko eskualdeak pairatzen duen gatazkari ez dio inolako mesederik egin Ukrainako gerrak. Egun Siriak pairatzen duen gosetea 2011n sufritu zuenarekin alderatu



daiteke, eta orduan lehortek eragindako gosea eta pobrezia izan ziren urte hartako matxinadaren arrazoi ezku nagusietakoak. Matxinada oraindik ere irauten duen gerra bihurtu zuten Damaskoko erregimenaren errepresioak eta Turkiak eta Persiar Golkoko erregimenek jihadistiei bideratutako laguntzak.

Errusia buru belarri sartu zen Siriako gerran Damaskoren alde, eta Bashar al-Assaden gobernu Moskuren eta Teheranen mendekoa da orain, horiei zor dielako bizirik irautea.

Sahelen, Errusiak estatu-kolpeak bultzatu ditu Malin eta Burkina Fason, jihadismoaren eragina dela eta, herritarrek Frantziako armadarekiko du-

ten mesfidantza –kolonialismoaren oroimenak elikatutakoa– profitatuz. Wagner merzenario errusiarren taldea jaun eta jabe da bertan eta, errepresioan laguntzearen truke, meategien ustiaketa bereganatzen ari da.

Zabal dezagun, beraz, fokua, Ukrainakoaz gain mundua atintzen duten gatazka esanguratsuenak aztertzeke.

ETIOPIA

Addis Abbebako Gobernuaren eta Tigray Herriaren Askapenerako Frontearen (TPLF) arteko gerrak 600.000 hildako inguru eragin ditu, zibilen artean, bi urtetan. Milioika pertsonak alde egin behar izan dute beren etxeetatik.

Ez da erraza datu zehatzak izatea, baina esan daiteke Etiopiako guda XXI. mendeko orain arteko odoltsuena dela. Esaterako, Sirian 10 urtean (2011/2021) 307.000 hildako zenbatu ziren, NBERen datuen arabera. Yemenen hildakoak 377.000 izan dira sei urtetan. Ukrainan, aldiz, 7.000tik gora da hildako zibilen kopurua (hori bai, AEBetako iturri militarren arabera, 200.000 soldadu ukrainar eta errusiar hil dira).

Etiopian ere 100.000 edo 200.000 lirateke hildako soldadu eta milizianoak, baina hildako 600.000 zibilen artean gehienak, %60, goseak jota hil dira (laguntza medikua eta botiken faltagatik %30

eta zuzeneko bonbardaketengatik %10).

Addis Abbebak blokeo izugarria ezarri zion Tigrayri, ordura arte behar zituen jakien ia %99 ekoizten zuen eskualdeari. Ez zen ezer iristen, argindarretik hasita ongarrieta-raino, diabetikoentzako intsulina, antibiotikoak eta txertoak ahaztu gabe. Etiopian heriotza tasa 1990ekoaren pare erori zen bat-batean.

Bi aldeek su-eten iraunkorra sinatu zuten azaroaren hasieran. Azken asteetan, ordea, lis-kar kezkarriak izan dira herrialdeko beste eskualde batean, Oromian.

Gerra 2020ko azaroaren hasieran piztu zen, TPLFk Meke-len hainbat base militarri era-

Ezkerreko argazkian, haur bat Goden, Etiopian. Ondokoan, laguntza humanitarioa, Al Haijan; Etiopian hori ere. EDUARDO SOTERAS | AFP





so ondoren. Aurretik, tigrayar buruzagiek Gobernu federalari desafio egin zioten, baime-nik gabe eskualdeko hauteskondeak antolatuta. 2018an Abiy Ahmed lehen ministroa agintera iritsi zenetik, tentsioak gora egin du. TPLF nagusi izan zen Etiopiako eszena politikoan hiru hamarkadatan, eta Ahmedek egindako erreformen ondorioz eragina galtzen ari zela ikusi zuen.

Su-eten berriak itxaropena sortu du. Hala ere, iparraldean su-etena egon daiteke, baina tigrayarren, oromoarren edo beste eskualde batzuetako herrien arteko lehia hor dago, federalistak ahaztu gabe. Identitate nazionala eraikitzeko benetako arazoa dago.

Tigrayn bakea mantentzeko zalantzetako bat Eritrearen jarrera da, haren indarrak gatazkan inplikatu baitira. TPLFko bozeramaileek Eritreako militarrei leporatu diete lurraldea suntsitzen jarraitzea.

Tigrayko gerra oraingoz itzaltzen ari den bitartean, sua pizten ari da Oromian. Oromia Etiopiako eskualde handiena da. Duela aste batzuetatik hona tentsioak eta gatazkak hazten ari dira oromo etniaren –herrialdeko jendetsuena, ordezkariak eskasa duelako aspaldiko kexa duena– eta amhararren artean –bigarrena–. Zaila da gertatzen ari denari buruzko datu zehatzak lortzea, baina Etiopiako Giza Eskubideen Batzordeak dio ehunka hildako eta

Ez da erraza datu zehatzak izatea, baina esan daiteke Etiopiako guda XXI. mendeko orain arteko odoltsuena dela: 600.000 zibil eta bi aldeetako 100.000-200.000 soldadu hil dira

Yemenen 23 milioi herritarrek behar dute laguntza bizirik irauteko. 400.000 hildakoetatik % 60 goseagatik edo ur edo laguntza medikorik ez izateagatik zendu dira

Kongoko gerratik ihes egindako talde bat, egurra eramaten, Virunga parke nazionalan.
GUERCHOM NDEBO | AFP

100.000 desplazatu daudela oromoarren, amhararren eta gobernuaren indarren arteko borroken ondorioz. Desegonkortze-arrisku handia dago.

Iparraldeko gerrako bi urteak gogorak izan dira herrialde osoarako. Prezioen igoera izugarria izan da; mundu osoan gertatu da, baina Etiopian dramatikoak izan da. Horri mugikortasunaren arazoa gehitu behar zaio, oso zaila baitzen hiri batetik bestera joatea. Hirugarren inpaktua, oraindik irauten duena, beldurra da. Talde etnikoen arteko tentsioak gatazka orokor batera eraman dezake herrialdea.

YEMEN

Iazko apirilean sinatu zuten su-etena bi aldiz berretsi dute Saudi Arabian erbestean dagoen Gobernuak eta huthi matxinatuek, 2014an gerra piztu zenetik barealdirik luzeena ahalbidetuz, baina akordioa urrian amaitu zen eta ez da be-

rritu, munduko krisi humanitario nagusia pairatzen ari den arabiar munduko herrialderik txiroenaren etorkizun zaila zailantzan jarrita.

Izan ere, 30 milioi herritarretatik 23 bat milioik laguntza behar dute bizirik irauteko, NBERen datuen arabera. 400.000 hildakoetatik, %60 goseagatik edo edateko urik edo laguntza medikorik ez izateagatik zendu dira.

Su-etenaren amaieraren ostean ez da gerra erabat berpiztu, baina iazko azaroaren erdialdean huthien matxinoek, iparraldean gotorlekua duen eta Iranek babesten duen taldekoek, eraso zioten Taizen gobernuaren egoitza militar bati, herrialdearen hego-mendebaldeko hirian. Egun batzuk geroago, huthiek Gobernuaren kontrolpeko eta Saudi Arabiak babestutako petrolio-terminal bati eraso zioten. Banku Zentralak aktiboak izozteko neurriekin eta erregaia ipa-

rraldera esportatzen duten erakundeei debekua ezarri erantzun du. Zigorrek tentsioa areagotu dezakete.

Bi aldeek hitz egiten jarraitzen dute, baina egoera ez da egonkorra. Huthiek –bere burua zaydi gutxiengo xiiaren defendatzaile gisa aurkezten duen talde politiko-militarra– ez dute kontzesioak egiteko gogo handirik agertu. Lurralde txikiagoa dute kontrolpean, baina jendetsuena da, eta Mendebaldearen eta Saudi Arabiaren esku-hartzearen etsai amorratuak dira.

Bitartean, Ryad eta Arabiar Emirerri Batuak (EAU) murrizten ari dira herrialdean duten inplikazioa. AEBak ere gerratik aldentu dira eta Washingtonen eta Riaden arteko harremanak bereziki hotzak dira garai honetan.

SIRIA

Siriako liskar armatuak, duela urte batzuk pairatu zituenekin alderatuta, asko murriztu dira, baina herrialdea baketzetik oso urrun dago. Azken asteetan gertatu diren bonbardaketek erakutsi duten moduan.

Turkiaren, Israelen eta Errusiaren aireko bonbardaketek gogora ekartzen dute konpondu gabeko gatazka bat dela, sakonki nazioartekotua.

Turkiako indar armatuak kurduak gehiago diren Siriako eta Irakeko hainbat eremu bonbardatzen ari dira azarotik, Istanbulen izandako atentatu baten mendeku gisa. PKK kurduen gerrillak atentatuarekin zerikusia izatea ukatu duen arren.

Hauteskunde atarian, Recep Tayyip Erdogan Turkiako presidentearen asmoa Siriako Kurdistango 30 kilometroko zabalerako segurtasun-eremua okupatzea da, duela urte batzuk Afrin kantoiarekin

Gerrillari kurduak bere garaian Estatu Islamikoaren hiriburu izandako Raqa hirian patruilan.
DELIL SOULEIMAN | AFP



egin zuen bezala. Ameriketako Estatu Batuen aliatuak diren eta Estatu Islamikoa garaitu zuten Herri Babeserako Unitateak, milizia kurduak, lurralde horretatik kanporatu nahi ditu. Lurralde horretan dago Qamishli hiria.

Horrez gainera, Israelgo indarrek maiz erasotzen diete Iranen agindupean gerran parte hartzen ari diren taldeei. Teheran Bachar al-Assad presidentearen babesle nagusietako bat da. Israelgo buruzagitzak ez ditu orain arte erasoak

aldarrikatu, baina duela zenbait aste bere gain hartu zuen Irakeko mugan arma kargamentu baten aurka egindako erasoak.

Era berean, Siriako erregimenak eta bere aliatu errusiarrak aldiro jotzen dute matxinoen esku dagoen Idlib eremuaren kontra, non nazioarteko laguntzarekin bakkirik bizirik iraun dezaketen lau milioi pertsona inguru bizi diren. Hain zuzen ere, duela bi asteko lurrikara izugarriak eskualde hori astindu zuen.

AEBek ere noizbehinkako erasoak egiten dituzte jihadistentzako kontra edo Iranekin aliatu tako milizia xiiaren aurka.

Gatazkaren nazioarteko dimentsioak hor jarraitzen du, milioika herritarren sufrimenduak bezala. NBERen kalkuluen arabera, 15 milioi pertsonen behar dute laguntza humanitaria, biztanleriaren erdiak baino gehiagok. Hamabi bat milioik zailtasunak di-

tuzte elikagaiak eskuratzeko. Azken asteotan, Siriako Estatuak benetan eskasak diren erregaiak eskuratzeko dirulaguntzak kendu ditu. Hori dela eta, siriarrak askok hotza eta mugitzeko zailtasun handiak dituzte.

KONGO

Duela hamarkada batzuetatik hona nazioarteko interesek bultzatuta Kongoko ekialdea astintzen ari den gatazka izugarriak berragertze-zantzu kezkarriak eman zituen iaz. NBek M23 gerrillak gutxienez 130 zibil exekutatu dituela salatu du duela gutxi. Milizia tutsiak Ruandaren babesa du. Liskarrak berriro piztu ziren iazko martxoan, eta urtean zehar M23ak hainbat herri konkistatu ditu Ruanda eta Ugandako mugetatik gertu. Indarkeriak ehunka mila desplazatu eragin ditu.

Kongoarrek nazioarteko komunitatearen neurri bikoitza

Hilaren hasieran gertatu den lurrikara izugarriak are gehiago okertu du Siriako eta, batez ere, matxinoen esku jarraitzen duen Idlib probintziako egoera jasanezina

Kongon, duela hamarkada batzuetatik hona nazioarteko interesek bultzatuta herrialdearen ekialdea astintzen ari den gatazka izugarriak berragertze-zantzu kezkarriak eman ditu

salatu izan dute. Kongoko Errepublikako Demokratikoak (RDC) beste herrialde baten, Ruandaren, erasoak jasan du, Ameriketako Estatu Batuek eta Europar Batasunak onartu duten bezala. Hala eta guztiz ere, Mendebaldeko Ruandari laguntzen jarraitzen du.

Jendea haserre dago NBERekin eta Mendebaldearekin eta, etsipen horrek, Ukrainako gerran, Errusiaren eta Vladimir Putinen alde egitera bultzatu ditu batzuk.

SAHEL ESQUALDEA

Sahel eskualdea ezegonkortasun kezkarria murgilduta dago oraindik ere. Iazko gertakari nagusia duela hamarkada Frantziatik iritsitako militarrek Malitiko alde egin izana izan da, tuaregen matxinadak eta, hori baliatuz, jihadistek egindako erasoak argi gorri guztiak piztu zituztenean. Europako gainerako soldaduak ere frantziarren atzera bidea hartzekotan dira.

Bien bitartean, talde jihadistek bereari eusten diote, eta gatazka eskualde mailakoa da gaur egun. Maliz gain, Burkina Fasok eta Nigerrek jasan dute orain arte 50.000 hildako eta 3,5 milioi errefuxiatu eta desplazatu eragin dituen krisiaren eragin handiena. Mehatxu jihadista hedatu egin da, eta gero eta kezkatuago daude kostaldeko herrialdeak.

Zerrenda, ordea, ez da tamalez herrialde hauetan amaitzen. Afrikako iparraldean, Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko gerra piztu da, Rabatek su-etena hautsi zuela, sahararrek armak berreskuratzea erabaki ondoren. Palestinan ere ez da giro eta azken hilabeteetan hildako asko –gehienak, palestinarrek–


eragin ditu Israelek bere handinahiarekin birsortutako krisiak.

HEGO SUDAN, MYANMAR

Hego Sudanen, indarkeria berriak milaka desplazaturen enegarren oldea eragin zuen iazko abenduan, baita Soma- lian ere, non Gobernuaren indarren eta Al Shabaab talde jihadistaren arteko borrokek jarraitzen duten; Myanmarren bi urte bete ditu gerra suspertu duen estatu-kolpe militarrek. Mundu erabat gatazkatsu baten pasarte batzuk baino ez dira.

2021. urtea 90 milioi errefuxiatu eta desplazaturekin amaitu zen, ACNURen datuen arabera. Iheslarietako Nazio Batuen Erakundeko Goi Mandatariak uste du 100 milioi baino gehiago izan direla iazko zenbaketan.

Beraz, ikus daitekeen moduan, Ukrainakoa izugarritzko krisia da, baina ez da bakarra.





Mahmud HAMSJ/AFP

IKUSMIRA

TALION LEGEAREN SORTERRIAN ASIMETRIA

Hammurabi Babiloniako erregeak ezarri omen zuen bere izena duen Kodean Talion Legea, oker bat zigor berarekin gaztigatzea proposatzen duena. Egungo Iraken zegoen antzinako erreinu hartan, justizia ez zen inola ere guztiz simetrikoa, batez ere emakumeekin eta esklaboekin. Iraketik gertu, lege horren aplikaziorik ankerrena ikusten ari gara Palestinan, nazioarteak, garai bateko judutarren erreinuan, Europako kontzentrazio eremuetatik ihes egin ahal izan zuten judutarrentzako estatua sortu zuenetik. Sekulakoak eta bi pairatu dituzte palestinarrek orduz ge-

roztik, baina egoerak okerrera egin du azken urteetan. Gazan giltzapetuta edo Zisjordanian Israelgo Armadaren inkurtsioen mende, ezer gutxi dute patuaren indarrari aurre egiteko: eskuak, harriak, labanak eta etxeetan osatutako koheteak. Batzuetan, gutxitan baina beti gehiegitan, hilkorak diren tresna horiekin ematen dituzte erantzunak. Norabide erabat kezagarria duen Estatu sionistak Armageddonaren mamuarekin erantzuten die beti. Asimetria, pairatzen duenarentzat txarra; probesten duenarentzat, luzarora arriskutsua. Dabid LAZKANOITURBURU



Saioa AGINAKO LAMARAIN
Psikoterapeuta

Lehenesten

Denbora luzeagoa ematen dugu besteei zorientsu gabela sinestazten, zorientsu izaten baino. Soziologoek diotenez, gero eta mundu indibidualizatuago eta atomizatuago batean bizi gara, eta, aldi berean, mugitzeko, ekiteko eta hautatzeko aukera handiagoa dugu mundu horretan. Hala ere, testuinguru eta bizimodu horren erdian, gogobetetzea ez da beti presente egoten. Are gehiago, zoritxarrak eta huts-sentsazioak dimentsio errepikakorrak izaten jarraitzen dute.

Zabaldua da beste batzuk geure buruaren gainetik lehenesteko hain gurea dugun ohitura. Horrela, eta ia konturatu gabe, sakrifizio elizkoi horren esanetara harremanak eraikitzen joan gara, non pentsatzen dugun zenbat eta gehiago eskaini besteei orduan eta maiteago izango gaituztela, orduan eta gehiago baloratuko gaituztela. Izan ere, besteentzat baliagarriak bagara, baliotsuak izango gara, eta maitatuentzat beharrezkoak bagara, maitatuak izango gara. Hiruko erregela horrek ez du beti espero den emaitza izaten; berez, gutxitan izaten du. Norberaren bizitzaren antzerkian aktore protagonista ez izateak ondorioak ditu.

Pertsona asko besteen ibilbideetan txertatuta gaude. Egin, egin, egin eta egitearen automatismoan erortzen gara, ekintza horiek berezko eta beharrezko gisa arrazionalizatuz. Oro har, gizakiok biltzen gaituen eguneko zurrumbiloan diluitzeko joera dugu. Are gehiago, gaur egun, hiperestimulazio etengabea dela eta, askoz gehiago kostatzen zaigu lehenestea. Eskariak eta informazioa etengabe jasotzen ditugu, eta geure arretari, gu-

txi trebatutako muskulu bat bezala, haren helburuak zein diren gogoratu gabe ibiltzen uzten diogu.

Denera iritsi nahi dugu, denak ase, dena konpondu. Ahalegina ekonomizatzen ikasi behar dugu, zehaztutako helburuetara bideratzeko, eta horrela zerbait buru erlaxatu baten bidez baino ezin da lortu, arreta garrantzitsua zaigun horretan jar dezake eta. Tranpa da, askotan, martxan jartzen ditugun konponbideak gure balioekin bat ez etortzea. Horregatik, erabakiak hartzean, damua edo blokeoa dakarten gauzak egiten ditugu. Horrek guztiak gainezka, akituta edo galduta sentitzera garamatza.

Lehenesten ikastea denboraren kudeaketa ona nola egin jakitetik harago doa. Lehenesteak esan nahi du norberaren bizitza antolatzea, balioak argitzea, zer den garrantzitsua eta zer den hobe atzeratzea edo joaten

uztea. Lehenesten ikastea norberaren garapen pertsonalaren eskutik doa. Lehenesten ikasteak, beste ezeren gainetik, minimizatzea dakar. Arazoa da askotan ez dakigula identifikatzen zein diren balio horiek eta zer lotura duten gure bizi-eremuekin. Lehenesten ikasteak gauzak (eta pertsonak) atzean uztera behartzen gaitu sarritan. Horretarako oso prestatuta egon behar dugu; izan ere, lehenesteak, batzuetan kostu bat dakarren arren, zorientasuna, autoestimua sustapena eta gure bizi-helburuak lortzea izango ditu ondorio.

Norbera lehenestea praktika erabat osasungarria, onuragarria eta beharrezkoa da. Norberaren ongizatea eta bizi-kalitatea areagotzea. Are gehiago, bere burua merezi duen moduan artatzen duenak bere onena eskaini diezaieke besteei. •

saioaaginako@gmail.com



Norberaren bizitzaren antzerkian protagonista ez izateak ondorioak ditu. David DE LA HOZ | GETTY

{ asteari zeharka begira } Iñaki ALTUNA

“Egunkaria”-ren itxieratik M11ko gezurretara

Euskaldunon Egunkaria” itxi zutenetik hogeitau urte bete dira aste honetan eta horrek, ezinbestean, garai hura gogoratzeko ariketa ekarri du berarekin. Maila batean, orduko jarrerak birsortu dira. Orduan atsekabetu edota samindu zirenak atsekabetuta eta suminduta agertu dira oraingoan ere, beharbada gogetatsua, denborak eskaintzen duen hausnarketa gaitasunari esker. Orduan, isil samar egon zirenek oraingoan ere isil samar segitu dute, Estatuaren bidegabekeriaren aurrean otzanegi agertu izana gogoratzeari ez baita erraza ere izango. Orduko portaerak eta gaur egungoak alderatuta, alabaina, bada aldaketa bat: orduan paparra puztuta agertu zirenak isilik egon dira urteurrenean. Seguru asko, ez eragindako minagatik gutxieneko begirunea izan behar dela uste dutelako; are gutxiago, bidegabekeria aitortu eta ez errepikatzeko konpromisoa, ahapeka bada ere, hartu dutelako. Haien kontakizunetik gaia desagertu izanaren arrazoia oso bestelakoa da, eta porrot politiko-estrategiko baten tekin du zerikusia.

Gertaera hura bere hartan azter daiteke, euskara hutsan zegoen egunkari bakarra itxi izanak suposatzen duena nabarmenduz, euskal hizkuntza eta kulturaren kontrako maila goreneko eraso gisa.

Ez zen, haatik, gertaera isolatua izan, norabide baten barruan kokatuta zegoen, eta norabide horretan salto handi bat suposatu zuen. «Dena da ETA» strategiaren baitan, urrats kualitatiboa izan zen, Estatuak zer egiteko kapaz zen erakutsi nahi izan baitzuen PPreko Gobernuak. Ez zen aurreko operazioak baino bidegabeagoa, batzuek “Egin” itxiera aldarrikatuz (Atutxaren garaia gogoratu besterik ez dago) eta “Egunkaria”-rena gaitzetsiz halako marra bat egin nahi izan bazuten ere. Ez zen bidegabeagoa izan, baina, esan bezala, Estatuaren ofentsibaren tamaina ikaragarria erakusten zuen, azaldu nahi izan zuten bortizki.

Harropuzkeria ere bazegoen tartean. Bush presidentearen ondoan hankak mahai gainean jartzeko eta munduan gerra non egin behar zen erabakitzeko gai zen Aznarrek hartutako bidean ez zuela balaztarik aurkitzen ondorioztatu zuen. «Zer uste zuten, ez ginela ausartuko?», esan zuen “Egin” itxi ostean, eta ezker abertzalearen ilegalizazioa ere kalte-ordain handirik gabe egin zutela esaten zuten PPkoek harroko.

Eta halako bideetan barrena aurrera egiteko Estatuak estoldak beti daude prest. “Egunkaria”-ren itxieran, aurreko operazioekin alderatuta, ordura arte halakotan jardun ez zuten epaile bat eta Guardia Zibila agertu zirenean, tortura eta guzti.

Urtebeteren buruan, ordea, PPk Espainiako Kongresurako hauteskundeetan gehiengo osoa lortuko zuela

Gehiegikeria horrek eraman zuen porrotera Aznar, 2004ko martxoaren 11ko atentatu islamistak ETArri egotzi zizkionean

espero zuenean, gehiegikeria horrek eraman zuen porrotera Aznar. Hain indartsu sentitzen zen gaian egin zuen, hain zuzen, porrot, 2004ko martxoaren 11ko atentatu islamistak ETArri egotzi nahi izan zizkionean.

Zoritzarrez, porrot hark ez zuen demokraziaren garapena ekarri. Estatuak estrategia hura erabat albertatu ez zuelako –Alfredo Perez Rubalcabaren garaiko “Bateraguna auzia”, adibide– eta haren ajeek oraindik irauten dutelako, GARArri egindako azken espolioa lekuko. Gainera, Estatuak ez dio uko egin halako astakeriak berriro egiteko aukerari, Kataluniaren prozesuan argiki ikusi berri dugunez.

Inposizioa du gotorleku, baina ez doan: “Egunkaria”-ren itxiera, Martxoaren 11ko gezurrak edota 155. artikularen aplikazioa lotzen dituen hariak are arrotzago bilakatu du euskaldunontzat “España” proiektua. •

LOURDES HERRASTI; HERIOTZA IKERTU, BIZITZA DESKUBRITZEKO

Amagoia MUJKA TELLERIA

Historialaria, antropologoa eta ikertzailea da Lourdes Herrasti Erlogorri (1958, Aretxabaleta). Berrogei urte baino gehiago daramatza arkeologia lanetan, lur azpian heriotzaren arrastoak bilatzen, bizitzak ezagutzeko. Heriotza ikertu, bizitza deskubritzeko.

Ikasle garaitik gaur arte, Paleolitikoko arrastoekin hasi eta 36ko gerrako hobietaraino. Lurrean belauniko jarri eta profesionaltasun zorrotzez ibilbide kronologiko luzea osatu du. «Gasteizen ikasi nuen. Nire irakasle zen Amelia Baldeonek aipatu zigun ia Gipuzkoara etorri nahi genuen indusketa batera. Jesus Altunarengana etorri ginen eta Errailako (Zestoa) indusketan aritu ginen. Geroztik Aranzadin nabil».

Arkeologia ez da Herrastiren lanbidea izan, bere denbora librean egindako jarduna izan da. Bigarren Hezkuntzako irakaslea izan da ogibidez. «Norberaren denbora librean egindako lana izan da, zaletasuna pasio bihurtua. Oso gutxi dira profesionalizatu direnak, honetaz bizi izan direnak. Azken hogeitertan gauzak asko aldatu dira eta arkeologiaz bizitzeko aukera handiagoa sortu da. Baina ni hasi nintzanean, desberdina zen».

Emakume askorekin aritu izan da. «Emakume asko izan dira arkeologian, baina askok ez dute jarduna mantendu denbora luzean zehar. Ez zen erraza, eragozpen handiak ziren arkeologia eta norbere bizitza bateratzeko. Igual nire kasuan ezohikoena da arkeologian mantendu naizela, bidean jarraitu dudala. Emakume asko aritu dira indusketetan eta une jakin batean utzi egin dute, ezin izan dutelako bide hori gehiago luzatu. Lana beste toki batean genuen denok; lanbidea eta soldata beste toki batean. Beste arkeologo asko unibertsitateko irakasleak izan dira lanbidez eta udan aritu dira indusketetan. Kontuan izan behar da garai batean indusketak udan izaten zirela, ez zirela urte osoan zehar egiten. Gehienek ikasturtea egiten zuten irakasle modura eta udak baliatzen zituzten indusketak egiteko. Gerora zabaldu dira indusketak urte osora».

Alaba jaio eta hilabete eta erdira indusketa batean zegoen Lourdes Herrasti. «Bularra ematen nion eta berriz bueltatzen nintzen indusketara. Ez da nire kasua bakarrik, beste emakume asko antzeko aritu dira. Gustatzen zitzaizun horretan jarduteko modua zen hori».



Irudian, Lourdes Herrasti Aranzadiren egoitzan, Donostian.
Andoni CANELLADA | FOKU


Arkeologiak egungo sona ez zuen garaian, emakume asko aritzen ziren. Hori izan da sentipena. «Agian bai, emakume asko aritu dira unibertsitatean eta gero puntan egon direnak, lehen lerroan agertu direnak, gizonezkoak izan dira. Askotan gertatzen da hori. Esparru askotan gertatzen da nabarmetzen direnak gizonezkoak direla eta emakumeek lan isilagoa egiten dutela. Arkeologian ere gertatu da».

Azken urteotan, eta Irulegiko eskua bezalako aurkikuntzak tarteko, arkeologia prestigio gehiago hartzen ari da. «Jendeari arreta ematen dio, oso gauza polita da, kaltegabea, ez dauka ideologiarik... Nik uste dut denoi gustatzen zaigula historia eta arkeologia historiaren atal politenetakoa da». Berrogei urteko bidearen ondoren, liluratik hitz egiten segitzen du Herrastik. «Berez oso liluragarria da, xarma handikoa. Indiana Jones-etik hasita, arkeologia oso miretsia izan da. Gure mentalitate atabiko horretan dago».

Laurogeiko hamarkadan hasi zen Herrasti indusketetan, hasiera hartan Jesus Altunaren gidaritzapean. Paleolitiko garaiko ikerketan abiatu zen. «Heriotza ikertzen dugu. Hasiera hartan, kobazuloak aztertzen hasi ginen. Paleolitiko garaian, baina bereziki ondoren, neolitikoan eta brontze aroan, lurperatu egiten zituzten hildakoak. Gorpuekin batera tresnak uzten zituzten, ustez hurrengo bizitzan beharko zituztenak, puntak, zintzilikarioak... Arkeologoek ikertzen dituzte tresna horiek. Baina Pakok (Etxeberria) eta biok bereziki hezurak aztertu izan ditugu».

HEZURREK KONTATZEN DUTENA

Hezurak aztertu, ia zer kontatzen duten. «Adibidez, gure herriko Hiruaspen (Aretxabaleta), ankilosatutako hatz bat topatu genuen. Hortik abiatuta, badakigu zein gaixotasun zituzten eta gutxi gorabehera zenbat urtez bizi ziren. Hipotesi batzuk egiteko beste informazio



ematen digute hezurrek». Ornoetan agertzen den puntilla ugariak, adibidez, pertsona horrek oso artrosi gartua zeukala adierazten du eta pentsatzekoa da bizkarreko min dezentekoa izango zuela. «Hortzei begira ere informazio dezente ateratzen da. Higuatuak badaude, pentsa dezakegu zer nolako dieta zeramaten, lan egiteko ere erabiltzen zituztela –tira egiteko, lokarriak egiteko...–. Badakigu garai batean txotxak ere erabiltzen zituztela haginaren artean garbitzeko, zuloak dituztelako. Atapuercan ere aurkitu dituzte horrelakoak...».

Batzuen eta besteen hezurak aztertuz, populazioaren profila marraztu dezakete. «Guztia aztertuz, profila ateratzen dugu, profil demografikoa. Zenbat ume, gizon, emakume... Adinaren eta sexuaren arabera banaketa egin dezakegu eta horrek erakusten du zer nolako gizartea zen. Adibidez, ohikoa goa zen emakumeak lehenago hiltzea, gazteago. Helduetan, gizonak gehiago dira. Emakume asko hiltzen zen erdizteko momentuan».

SAN JUAN ANTE PORTAM LATINAM

«San Juan Ante Portam Latinam aztarnategia (Guardia) 1990ean topatu genuen. Haurdun nengoen. Alaba ekainean jaio zen eta hilabete eta erdi geroago indusketan nintzen. Bularra eman eta berriz bueltatzen nintzen indusketara. Hor aurkitu genituen, ater-

Lantalea Zestoako Amaldako kobazuloan. Herrasti, goiko lerroan, eskuinetik hasita, bigarrena. Alboko irudian, berriz ere lantalea. Indusketetan hainbat diziplinako adituak aritzen dira elkarlanean. ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



«Jendeari arreta ematen dio arkeologiak, oso gauza polita da, kaltegabea, ez dauka ideologiarik... Nik uste dut denoi gustatzen zaigula historia eta arkeologia historiaren atal politenetakoa da. Gure mentalitate atabiko horretan dago»

«Paleolitiko garaiko indusketa batean ez daukazu sentimendurik inguruan. 36ko gerrako indusketa batean familia hor dago, sentimenduak hor daude. Sentsazioak eta emozioak desberdinak dira»

pe baten azpian, 333 pertsonen hezurak, denak batera. Eta horrek esan nahi du denak batera hilobiratu zituztela. Zerbait gertatu zen, gaixotasun bat izan daiteke, sarraski bat edo elkarren arteko liskarren bat. Topatu genituen zenbait gorpuren barruan txertatutako suharri puntak. Horrek esan nahi du erail egin zituztela: suharri punta sartu zieten bizkarrezurrean eta medula zeharo txikitu zieten. Heriotza etorri zitzaaien. Beste kasu batzuetan bizirik jarraitu zuten geziaren punta barruan zeukatela. Oso bitxia da, horrelako kasu oso gutxi egon direlako. Hemen 15 kasu daude; batzuk hil egin ziren eta beste batzuek bizirik irautea lortu zuten. Baina garbi dago gatazka handiak zituztela eta indarkeria handia erabiltzen zutelako elkarren aurka. Elkarren arteko borrokak zeuden eta sekulako sarraskiak gertatzen ziren. Aipatu ditudan 333 pertsonen hezur

dura horietatik, 100 bost urtetik beherako haurrak ziren. Oso aztarnategi berezia da».

ARRASATEKO MOMIA

Berrogei urteko bidean, askotariko egoerak topatu ditu. «Beste gauza batzuk ere aztertu izan ditugu: momiak. Inguruan ere badaude; adibidez, Arrasateko Amandre Santa Ines. Nire aita zenak kontatu zidan bera txikia zela Arrasateko San Juan elizan momifikatutako emakume bat zegoela akordatzeko zela. Joan ginen galdetzeraz eta apaizak ezetz esan zigun. Gero hor zehar galdetu zuen hobeto eta agian baietz. Eskailerapean zeukaten jaso momia. Ines Ruiz de Otalora. Oso pertsona garrantzitsua. Bere senarra, Okariz jauna, Felipe I.aren idazkaria. Biak ekarri zituzten momifikatuta Arrasatera. Jendeak ikusten zuenez Ines ez zela usteltzen, gauza berezia zen hori eta koplak batzuk sortu zituzten, letania batzuk. 'Amandre Santa Ines, bart egin dot amets, ona bada bion partez, txarra bada doielara ihes'. Berari eskainiak». Gaur egun Amandre Santa Ines ikusgai dago San Juan elizan.

Arrasatekoa ez da momiekin izan duten esperientzia bakarra. «Gure ezaguna den apaiz batek kontatu zigun Tole-doko eliza batean mordo bat zeudela, ezkutatuak kapera baten azpian. Joan ginen eta atera genituen denak, 50, eta aztertu. Momia haiek oso berriak zi-

ren, XIX. mendekoak, eliza azpitik atera zituzten. Lotsa emango zien erreteak eta ezkutatu egin zituzten kapera baten azpian».

ESPEDIZIOAK MUNDUAN BARNA

Estatu espainolek kanpo ere aritu dira, Mendebaldeko Saharan pare bat aldiz. «Meherisera joan ginen. Esan ziguten han bazirela zenbait hobi klandestino eta horiek ateratzera joateko. Maroko eta Sahara liberatuaren arteko mugaraino iritsi ginen justu. Marokon dago munduko harresirik luzeena, Txinakoa baino luzeagoa. Iparraldetik hegoalderaino harresitua dago eta Marokok 100.000 soldadu dauzka hori guztia kontrolatzeko. Meherisera joan ginen eta hondarreen zeuden gorpuak atera genituen. Sei pertsona zeudela identifikatu genuen: lau heldu eta bi haur. Desagertutakoen artean hamar urteko bi mutikoren bila genbiltzan. Objektuen artean oinetakoak ere topatu genituen, denenak. Objektuek informazio asko ematen dute. Saharan oraindik hobi mordo bat dago, baina gune minatu batean daude eta ezin da sartu».

2017an beste bidaia bat egin zuten, Antartidara. «Antartidatik gertu daude Falkland Islands (Malvinak). Malvine-tako Gerra 1982an gertatu zen. Argentinarrak eraso egin zuten eta erabaki zuten bereak izan zitezkeela irla horiek. Soldadu mordo bat sartu zen. Oso laburra izan zen, 70 egun. Argentinarrak mordia hil zen, 18-19 urteko gazteak, soldaduska egiten ari zirenak. Nora zihoazen jakin gabe bidali zituzten eta oso modu bortitzean hil ziren. Gerra bukatu zenean, Margaret Thatcherrek erabaki zuen beren soldaduen gorpu guztiak erretiratzea, baina Argentinako soldaduak abandonatuta geratu ziren. Erresuma Batuak aginduta, Geoffrey Cardozo sarjentu britainiarrak helburu hartu zuen soldadu argentinarren gorpu guztiak berreskuratzea eta kanposantu batera eramatea. Nazioarteko protokolo guztiak jarraituta, Darwin kanposantua eraiki zuen, 250 pertsonentzat. Bete egin zen. Helikopteroan joaten ziren, gorpuak ikusten zituzte-



nean jaso eta kanposantu horretara eramaten zituzten. Gehienak identifikatu zituzten, baina asko eta asko identifikatu gabe geratu ziren, 122 inguru. 2017an, nazioarteko itun baten bitartez eta Gurutze Gorria tartean zela, enpresa bat sortu zen bertaratu eta ezezagunak ziren gorpu guztiak ateratzeko. Hillobi horietan, ezezagunak zirenen kasuan, 'soldado argentino solo conocido por Dios' jartzen zuen. Oso gogorra».

Gorpu horiek atera eta izena jartzera joan zen talde bat; britainiarrak, argentinarrak, espainiarrak eta euskal herriarrak tartean. «Bi hilabete eta erdian, denak atera genituen. Egun batean ateratzen genituenak egun berean hilobi-

ratzen genituen. Inguruan, soinean, batzuetan dokumentuak topatzen genituen. Gorpuak osorik zeuden, saponifikatuak zeudelako. Eskutitz asko topatu genituen, askotan amari idatzitakoak. Eskutitzak agertzen zirenean, indusketa geratu, denak isildu eta nik ozen irakurtzen nituen. Imajinatu zer nolako unea. Amari kontatutakoak eta amak inoiz jaso gabeak. Oso gauza hunkigarriak dira. Une batean zeure burua gogortu behar duzu eta distantzia jarri; bestela, sentimenduek gainezka egiten dute».

Ikerketa osoa bertan egin zuten. «Denak hilobiratu genituen eta gaur da eguna non denak identifikatuta dauden. Sekulako lana izan zen: denei laginak hartu, Argentinara bidali eta bertako laborategi batean jarraitzen zuten identifikazioa. Bi falta dira, baina seguru aski, senideek ez dakitelako. DNA frogak egiteko ez dira bakarrik hezurak behar; familiaren beste lagin bat ere behar dugu alderatzeko eta identifikatzeko. Hori gabe ezin da identifikatu. Aurten bete dira 40 urte gerra gertatu zenetik eta bizirik atera ziren beteranoak ari dira indusketa arkeologikoak egiten terapia modura. Oso gaizki pasatu dute, ez dute gaintu, engainatuak eta abandonatuak sentitu dira. Eta orain lagungarri bezala arkeologia erabiltzen ari dira. Arkeologiak balio handiak ditu».

Euskal Herritik urrunagoko lurretan ere aritu dira lanean Aranzadikoak, Lourdes Herrasti tartean. Irudian, Mendebaldeko Saharan indusketa lanetan.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

2000. URTETIK, 36KO GERRAKO HOBIAK

«2000. urtean kasualitatez joan ginen Leonera. Bertatik deitu ziguten, antropologoa eta arkeologoa ezagunak genituen. Hobi bat ateratzera zihoazela eta ia nahi genuen parte hartu. Ez genuen inondik inora pentsatzen topatuko genuena eta gerora etorriko zena; ez genuen pentsatzen 36ko gerrak horrenbeste hildako sortu zituenik. Horrenbeste jende modu ilegalean eraila. Hilketak dira eta oso gogorrak. 11.000 pertsona topatu dira eta pentsa daiteke 130.000 ere izan zirela. Gehienak tiroz erailak, lurpean klandestino ki galduak eta gizarte osoarentzat ezkutatuak. Hori da guk egiten duguna: lur azpian ezkutatuko bistara atera».

Lurpean informazioa dago eta lurra-
ren gainean, informazio hori osa deza-
keten testigantzak. «Arazoa zen ezin zi-
rela biak lotu. Baziren testigantzak
–nahiko isilak asko–, baina lurraren az-
pian zegoenak ezkutatuta jarraitzen
zuen. Denak bizi ginen ezjakintasun-
ean eta oso garrantzitsua izan da lur
azpian zegoena argitara ateratzea. Lu-
rrak hitza eman dio hor azpian zegoen
guztiari».


Paleolitikoa ikertzetik 36ko gerra
ikertzera bada aldea. Desberdintasun
nagusia, seguru aski, indusketetan ari
direnean hildako horien ondorengoak,
senideak, alboan izatea. «Paleolitiko
garaiko indusketa batean ez daukazu
sentimendurik inguruan. 36ko gerrako
indusketa batean familia hor dago,
sentimenduak hor daude. Sentsazioak
desberdinak dira; ez daukazu hezur bat
aurrean, pertsona baten hezurdura
daukazu eta berekin zerikusia dutenak,
inguruan».

Izua. Herrastik garbi dauka lurpean
egon direla eta isiltasuna nagusitu dela
izua egon delako; «ez beldurra, izua.
Seguru zuen etxeetan gurean bezala
esaten zela ‘horri buruz ez hitz egin,
ixo’. Hori hautsi nahi dugu».

Gehienetan emakumeak gerturatzen
zaizkie isiltasuna haustera, «oroimena
emakumezkoa da. Emakumeek gorde-
tzen dute familiaren oroimena».

«Normalean hobiak oso itxura xu-
mea dute. Espainiar Estatuan 800 hobi
atera ditugu; guztira, 11.000 pertsona.
Eta oraindik falta dira. Denak ez daude
identifikatuta. Batzuetan hezurrek ez
dutelako informazio nahikoa ematen
eta beste batzuetan familia falta zaigu-
lako frogak egiteko. Batzuetan badaki-
gu zein izan daitezkeen eta ez daukagu
familiarik laginak alderatzeko».

Hobietan jende asko aritzen da la-
nean, hainbat diziplinako profesio-
nalak. Lourdes Herrastik behin eta be-
rriz nabarmendu du berea «talde lana»
dela eta kide guztiak direla beharrez-
koak prozesua bukaeraraino arrakastaz
eramateko. Indusketen zutabea talde
lana da. «Prospektoreak, biologoak, ar-
keologoak, genetistak... denak dira
beharrezkoak».



Pako Etxebarria eta Lourdes Herrastik
Berriozarren topatutako hobi baten
alboan. 2000. urteaz geroztik, 36ko
gerrako hobietan ari dira lanean
nagusiki.
Idoia ZABALETA | FOKU

Hobiak topatzeko orduan, batzuetan
testigantzek irekitzen dute bidea. Badi-
ra bestelako pistak ere. «Detaileak ba-
daude. Enbor batean markatutako gu-
rutze bat, adibidez. Norbaitek marka
hori jarri zuen bazekielako hobi bat ze-
goela. Gurutze horrek eraman gintuen
hobiraino». Beste batzuetan familiak
eman diote hobi itxura gerora, haien
mina eta falta samurtu nahian edo.
«Gehienetan hobiak bide bazterretan
daude. Gazteleraz esaten den ‘estar en
la cuneta’, literalki. Kamioietan erama-
ten zituzten atxilotuak, bertatik jaitzia-
razi eta jaitsi ahala bertan akabatu, bi-
de ertzean. Eta bertan hilobiratu».

TIROEN HOTSA ETA LEKUKOEN ISILTASUNA

«La Pedrajan (Burgos) 130 pertsona
aurkitu genituen, denak gizonaekoa.
Kartzelatik erailtzera ateratakoak eta
herriz herri atxilotutakoak. Oso paraje
berezia da, portu bat. Eraiketa guztiak
ezkutuan egin daitezke, inor konturatu
gabe, ez bada ondoan dagoen kamine-
roa. Bidezainaren etxea zegoen alboan
eta bertan bizi zen familiak beti gorde
izan du sekretua. Imajinatu zenbat de-
tonazio eman behar diren 130 pertso-
na erailtzeko, tiro bat bestearen atze-

tik. Familia horrek entzun ahal zituen
denak, ondoan zeudelako».

Beste batzuetan isiltasuna urte asko
pasatu eta gero hausten da. 1938ko
maiatzean gertatutakoa duela dozena
erdi pasatxo urte atera zen azalera.
«Paulina neskatila zela eskolatik atera
eta ikusi zuen mugimendu handia ze-
goela, soldaduak, jendea atzera eta au-
rrera.... Jakin-minez gerturatu zen La-
rrasoañako (Nafarroa) kanposantura
eta aita ikusi zuen gorpu bat lurpera-
tzen, hobi bat egiten, kanposantutik
kanpo. Gauza arraroa zen. Gogoan izan
zuen eta ez zion inori kontatu. Eta due-
la zazpi bat urte, bazkaltzen ari zirela,
albisteetan ikusi zuen nola ari ginen
gu hobiak topatzen. Eta alabei esan
zuen ‘bada nik badakit non dagoen bat’.
Eta kontatzen hasi zen. Bi alabak era-
man zituen bertara, alabek guri infor-
mazioa eman ziguten eta horrela topa-
tu genuen hobi hori. Lau pertsona
daude, laurak iheslariak dira; Ezkabatik
ihesi atera ziren lau preso herri horre-
tan erail zituzten. Gorriak zirenez, ez
zuten merezi kanposantuan hilobira-
tuak izatea eta kanpoan lurperatu zi-
tuzten. Horietatik bi identifikatu ditu-
gu». Horietako bat Leoncio de la



Itxialdi garaian, Altzon bertan Altzoko Handiaren hezurak topatu zituzten, Altzoazpiko kanposantuan. Irudian, Herrasti hezurren inguruko azalpenak ematen.

Marisol RAMIREZ | FOKU

Fuente da eta bere alaba, Paulina. Palentziatik etorri zen aitaren hezurak jasotzera. «Paulina eta Paulina. Adin bereko eta izen bereko bi emakume elkartu ditu historiak».

Lau gorpu kanposantutik kanpo, bi ahuspez eta beste bi ahoz gora. Paulinaren begietan bizirik dago haurra zenean ikusitakoa, «oso-osorik ikusi nituen gizonezko horiek. Bi konfesatu egin ziren eta beste biak, ez». Akaso horregatik zeuden bi ahoz gora eta beste bi, ahuspez. «Askotan ahuspez hilibiratzten zituzten. Aparteko zigorra zen. Kristau munduan, beti gora begira jartzen da hildakoa, zerura begira. Behera begira egotea infernura begira egotea da».

«Topatzen ditugunen artean, %2 emakumezkoak dira. Batzuetan gizonezkoekin batera eta beste batzuetan emakumeak elkarrekin. Errepresaliatuak dira. Senarra, semea, anaia... topatu ez zituztelako haien orde atxilotutako emakumeak. Adibidez, Sevillan daude Guillenako 17 emakumeak; 50 urte inguruko emakumeak, gehienak amak, eta semeak eramaterik ez zutelako izan eraman zituztenak».

Fusilatuen kasuan, tiroak daude, gehienetan buruan. «Guk egiten ditugun ikerketek balioa dute. Epaileek hartuko balute hau beren gain, honek balioko luke esateko benetan erailketa bat izan dela eta judizioz kanpokoa, es

trajudiziala. Horrek mugitu beharko luke espediente bat. Baina 50 urte pasatu direnez, beraiek salbu daude eta ez da ezer gertatuko. Baina guk prozesu osoa egiten dugu, inoiz beharrezkoa bada, hor egon dadin informazio hori guztia».

OBJEKTUEN GARRANTZIA

Maiz objektuek kontatzen dute falda den istorioaren parte. Donostian, Urumea ibaiaren ertzean, trenbidean lanak egiten ari zirela hezurak agertu ziren. «Justu hiru egun lehenago Asturiasen izan ginen indusketa batean eta bertan guri laguntzen aritutakoa zen Donostiako obra horren arduraduna. Hezurak ikusi zituenean abisua eman behar zigula pentsatu zuen. Atera genituen gorpuek eta batek botoiak segidan zeuzkan, uniformearenak. SS jartzten zuen botoietan. Donostiako sereno bat zen, ibaiaren ondoan eraildako. Eta botoiek pista eman ziguten. Objektuek, batzuetan, asko laguntzen digute».

Beste kasu batean eraztun txiki batek josi zuen istorioa. «Eraztun txiki bat topatu genuen hobi batean. Hogeita zazpi pertsona zeuden bertan. Data bat eta bi letra: PE. Artxibozainak miaketa bat egin zuen artxiboan eta egun horretan ezkondu ziren pertsonen artean topatu zituen Placido eta Emilia. Modu horretara identifikatu ahal izan geni-

tuen hobian zeuden 27 pertsonak. Eraztun txiki bati esker».

ISILTASUNAREN ONDOREN, ISILTASUNA

«Batzuetan zortea izaten dugu. Gorpua identifikatu eta familiari ematen diogu. Askotan hitzik gabe geratzen dira, isil-isilik, ezin dutelako bat-batean emozio hori guztia bizi eta horri hitzak jarri. Memorian jasotako guztia azaleratzen da bat-batean, emozio handiko unea da. Denak egoten gara isilik».

Isiltasuna, negarra, eskertza. «Familiarentzat oso garrantzitsua da gorpua berreskuratzea. Lasaitasuna ematen die, patxada. Zauria ixten laguntzen du. Gaur bertan jakinarazi diogu familia bati identifikatu dugula haren senidea. Hitzik gabe geratu dira».

Berrogei urteren ondoren, deskubritzearen lilura ez da itzaltzen arkeologoarengan. «Emozio hori ez da itzaltzen, sekulakoa da inork ikusi gabe zeukana bistara ekartzea».

ALTZOKO HANDIA

Askotan zientziak datuz jantzen ditu kondairak, susmoak. Beste askotan, erabat birrindu. Altzoko Handiarekin horrelako zerbait gertatu zen duela bi urte pasatxo, Herrasti eta bere lantaldea, tarteko. «2020an, Karlos Almorza lankidea artxiboa miatzen ari zen Altzon. Inork ez zekien Altzoko Handia non zegoen lurperatuta eta gugana

etorri zen, 'hau begiratu egin behar da' esanez. Altzoazpiko kanposantuan begiratzen hasi ginen. Familiaren ohiko tokian egin genuen lehen zuloa. Elizegitarrek bazeukaten beren tokia. Hor ez genuen topatu. Agian hezurtegian egon zitekeela pentsatu genuen. Hori hustu genuen eta kide batek sekulako hezur handi bat atera zuen, besoko hezur bat, humero bat. Dena hustu genuen eta atera genituen hezur guztiak: 2,42 zentimetroko altuera zuen pertsona baten hezurdura. Ia eskeleto osoa. Ornoetan arazo larriak zeuzkan. Artrosi ikaragarria, oker-okeregina ibili zen eta seguru aski amaieran, makuluekin. Sekulako poza eman zigun. Konfirmendu garaia zen, gainera. Beti egon da zurrumurrua 'ingelesek' eraman zituztela hezurak. Egia da Ingalaterrako antropologo batzuk Altzora etorri zirela hezurak eraman zitzaizketen galdeztera, hezurak aztertzeke. Familiari galdetu eta ezetz esan zieten, baina beti egon da susmoa lapurtu egin zituztela. Ez: Altzoko Handiaren hezurak beti egon dira Altzoazpiko kanposantuan».

Ikasle garaian, unibertsitatearen atarian, kazetaritza ikastea omen zeukan buruan Lourdes Herrastik, hango eta hemengo istorioak kontatzea maite zuelako. Egiten duenak asko dauka horretatik. Lurraren azpikoa atera, bizitzak deskubritu eta horien istorioak kontatu.

LUR AZPIKO ABENTURAK



Amaia
BALLESTEROS

iRRITZIA: {

BILBOKO TORTILLA DASTATZAILE BATEN IBILERAK

Hurrengo lerroetan tortilla dastatzaile baten istoriora hurbilduko da GAUR8, @tortibilbo Instagram kontuaren bidetik, proiektu horren atzean dagoen pertsonaren anonimotasuna gordez.

Horrela eskatu du espresuki, eta arrazoi bat dago: «Taberna batean sartzen naizenean nahiago dut ez ezagutzea, horrek esperientzia aldatu ohi duelako». Aurrerago ikusiko dugu errekonozitua izateak noraino alda dezakeen dastaketaren esperientzia.

Bere ondoan ikasi dugu patata tortilla klasikoaren –patata, arrautza eta tipula, «baina azken hori aukerakoa da»– erreseina bat egiteko zeri begiratzeko dion, eta pintxoaren erresuma den Euskal Herrian tortilla pintxoak goi mailako postuetan egon arren, hobeak probatu dituela kanpoan. Gustu kontua da, noski, eta nabarmendu duenez, bere iritzia baino ez da sare sozialean plazaratzen duena. Horregatik egiten dituen aipamenek ez dute ezer ezkutitzen, baina ez dute min egin nahi. Berak esan ohi duen bezala, taberna bisitatzea eta tortilla pro

Nerea Goti

Bilbon hainbat tortilla mota dastatzeko kapritxoa daukanak erreferentzia jantzi bat aurkituko du @tortibilbo Instagrameko kontuan. Ehunka dastatu eta hainbat sukalde bisitatu ostean, pintxoaren atzean dauden sekretuez hitz egin du GAUR8rekin haren sortzaileak.

batzea da gomendio nagusia; hain zuzen ere, norberak ikus dezan arrazoi duen edo ez.

Esango dugu 'Aitor' izena duen gazte bat dagoela proiektuaren atzean. Arrankudiaga-Zolloko bizilaguna dela, eta dagoeneko patata tortilla ugari dastatu duela Euskal Herrian eta gure mugetatik kanpo Zientzia Politikak ikasi dituen 26 urteko gazteak. Ez du bere aurpegia ezagutzea nahi, baina ez du ezkutitzen egiten duen hori. Izan ere, hobby preziatu horretan zerikusirik handia izan dute bere lagunek, GAUR8ri azaldu dionez. Osasun arazo bat tarteko, tortillak dastatzen ibili zen denbora luzean, eta «lagunek esaten zidaten, Bilbon hainbeste tortilla ezagutzen nuenez, kontu bat egin nezakeela gomendioak egiteko eta jakin zezaten zein probatu...».



Momentuz Instagrameko kontura mugatzen da Tortibilbo proiektua, eta esan bezala, patata tortilla klasikoa izaten da erreseinaren protagonista nagusia; «normala», bere hitzetan. Astero elikatzen du kontua dastaketan aipamenekin.

Azken erreseinetakoen artean, itxura ederreko york urdaiazpikodun eta gaztadun patata tortilla pintxo bat agertzen da. Hurrengo dio erreseinak: «Tortilla nahiko arrunta, egia esan. Arrautza nahiko egina eta zapore handirik gabe. Gehigarriak izanda ere, york eta gazta kasu honetan, zeozer falta zaio! Hala ere, lehen bisitan baino oroitzen hobea dut. Pasa zaitezte zuek ere dastatzera». Pintxoaren tamaina eta prezioa ere jasotzen ditu.

DASTAKETA «DISKRETUA»

Erreseinak egiteko prozesu bat jarraitzen du. Pintxoa atera eta segituan argazkia egiten dio, itxura ikus dadin. Tortilla zatitzea da hurrengo urratsa, zer testura daukan eta «arrautza eta patatak nola dauden» ikusteko, «baina inportanteena zaporea da, gatz puntua, ondo eginda dagoen», eta pintxoak bere osotasunean zer transmititzen duen kontatzea. Ohar horiek guztiak sakelako telefonoan apuntatzen ditu, ondoren erreseina osatzeko, baina adierazi duenez, behin lan guztia eginda gozaten du pintxoaz. Beste bitxikeria bat: ogia ez du jaten, ez baitu gustuko, kontatu duenez.

Gaineratu duenez, prozesu hori «ahalik eta diskretuen egiten» saiatzen da. «Batzuek ezagutzen naute jada, beste batzuek ikusi naute grabatzen, baina ez zait gustatzen jendeak nabaritzea nor naizen, behin ezagututa batzuetan ezberdina baita zerbitzua, ezberdina izan baitaiteke pintxoaren tamaina...», azaldu dio GAUR8ri. Beste oharpen bat egin du: pintxoa ordaindu egiten du beti. Eskertzen du hainbat tokitan izan dezaketen gonbidatzeko detailea, bana erreseina egiteko orduan nahiago du pintxoa eta, oro har, zerbitzu osoa benetan diren moduan ikusi ahal izatea, beste bezero bat baltz bezala.



Ondoko orrialdean, Bilboko Alde Zaharreko taberna batean GAUR8rako propio egindako dastaketa batean. Bilboko patata tortilla onenetako bat aurki daiteke han, dioenez.
Marisol RAMIREZ | FOKU

Tortilla pintxoak izan behar duen temperaturaz galdetu dio GAUR8k, horretan gustu ezberdin asko baitago; badago tortilla ondorengo egunean dastatu nahiago duena, zapore handiagoa hartzen duelakoan. Tortibilbo proiektuaren sortzailearen ustez, ordea, tortilla egin berritan dago punturik onenean, eta ez da pintxoa berotzearen aldekoa. «Mikrouhinetan sartzen duzunean, osagaiak beste testura bat hartzen dute, apur bat sikatu egiten da neurri batean», dioenez. Tortilla on baten sekretuaz, osagaien kalitatearen garrantzia nabarmendu du, baita erabilitako olio ere. Nahasketa neurri handietan ez egitea ere bai: «Hortik etortzen dira kutsatze asko».

Bilbo da tortillen munduan ondoen ezagutzen duen euskal hiriburua, bai-

na ez bakarra: Gasteizen eta Donostian ere ibili izan da. «Iruñekoak ez ditut ondo ezagutzen», zehaztu du.

Ikuspegi zabal horretatik begiratuta, pintxorik onenak Euskal Herrian jan dituen galdetuta, argi dio oso maila altua dutela bertoko tortilla pintxoek, baina Madrilen eta Kantabrian kokatu ditu maila gorenekoak. «Euskal Herri mailan, esango nuke Bilbo eta Donostia artean daudela goxoenak. Ziurrenik, Donostiako gehiago egongo lirateke onenen zerrenda horretan, baina postu altuagoetan egongo lirateke Bilboko bizpahiru onenak», erantsi du gazte bizkaitarrak.

Kantabria eta Madril daude, beraz, tortilla onenen goiko podiumean, baita Logroño ere. Azaldu duenez, hala ere, Madrilen maila altua duten patata tortilla horiek ez dira berez Madrilekoak; «kanpoko eskolakoak dira, maila igo duena Santanderreko Cañadio taldea da, hari kopiatu diote Madrileko famatuenean. Cañadio taldeko bi eta Ampueroko La Solanakoak izango lirateke, nire ustez, onenak».

Tortibilbo kontuko sortzaileak tortillak prestatzen ditu etxean? «Etxean nahiago dut beste gauza batzuk egin; azken boladan amari laguntzeko egiten dut gehienbat».

Zenbait sukaldetan ibili da Tortibilbo tortillak nola egiten dituzten ikusteko, eta desberdintasun handiak daudela azaldu du, osagaien kalitateari dagokionez eta prestatzeko eran, gorringo gehiagorekin...

Iazkoa izan zen proiektuaren lehen urtea eta Bilboko 150 tortilla probatu zituen Tortibilbo elikatzeke. Aurten beste ehun inguru sartzeko asmoa du, eta «gehienak probatuta eta idatzita daude»



Itziar ELIZONDO IRIARTE
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

SOS, deitu egin behar dut



Gaur egungo gazteek nahiago dute mezuen bidez komunikatu deien bidez baino. Komunikazio asinkronoa. GAUR8

Lan kontuak direla medio jende gaztearekin sarritan komunikatu behar izaten dut. Zorionez, esan behar, asko ikasten baitut. Ez dago mantra aspergarriagorik belaunaldi berriak kritikatzeari baino. Gure buruari entzuten diogunean gaur egungo gazteak diziplinarik gabekoak direla, ez dituztela beren nagusiak errespetatzen, ez dutela irakurtzen, unibertsitatera okerrago prestatuta iristen direla, edo antzeko gauzak, belaunaldiz belaunaldi pasatu den lelo harropuzta errepikatzen ari gara. Izan ere, duela hogeita bost mende grekoek gauza bera zioten.

Eta beraiekin komunikatu behar dudanez, erabat egokitu behar izan dut nire burua beren komunikatzeko moduetara. Dagoeneko ez zait, esaterako, arraroa egiten beraiek telefono deiak ez erantzutea. Kontua ez da, ordea, paso egiten dutela. Nahiago dute mezuak jaso, zer erantzun ondo pentsatu, eta ondoren audioa bota. Komunikazio asinkronoa, alegia. Deiak jaso ez, baina beraiek ere ez dituzte deiak egiten inbasiboak iruditzen zaizkielako. Bada aurrerapauso bat, besteei errespetuzko praktika delako. Dena dela, egon badaude muturreko egoerak. 'Antsietate telefonikoa' esaten zaio gazteek halabeharrez telefonoz hitz egin behar dutenean bizi duten SOS-estres egoera horri.

Zaharrunook ere komunikazio asinkronora salto egin dugu arazorik gabe. Finean, ia denok testuinguru garaikideak ematen dituen aukerak geureganatzen baititugu. Zer esanik ez komunikatzeko moduei dagokienez. Gero eta gehiago erabiltzen dugu whatsapp eta telefono deiak ekiditen ditugu komeni zaigunean, adibidez, gogoko ez dugun senide baten urtebetetzean.

Baina ez gara hasiko esaten betiko deiak desagerraraziko ditugunik. Izan ere, adituek diote maite dugun pertsona baten ahotsa telefonoz zuzenean entzuteak emozionalki doitzen gaituela. Alegia, elkarrekintza funtsezkoa dela ongizate psikologikorako, osasun fisikorako eta bizitza-luzerarako. Eta elkarriketa da haren euskarria.

Bestalde, duela gutxi irakurri dut, lan mundura iritsi berri diren Z-gazteek ez dutela posta elektronikorik bidaltzen. Mailik gabeko lanegunak irudikatzea, aldiz, gehiago kostatzen zait. Lanean whatsapp mezuek askotan arazoak eta ez-ulertuak dakartzate. Horretan, nire ustez, hobe txukun eta argi bidaltzea testuak, irudiak eta dokumentuak mail batean. Gainera, whatsapp bidezko lan-mezen kate horiek inbasiboak, ernegarriak eta kaltegarriak dira. Telefono deien antzera, ala ez? •

{ koaderno } **Xabier IZAGA GONZALEZ**

Legeak katuen baretasuna asaldatzen duenean

Goizero jaiki orduko, katua ohera igo eta nire bizkarrak berotu duen koltxoi zatian etzaten da. Hortxe gelditzen da luze-luze (gaur uzurtuta), gelako leihoa zabalik. Nik, bitartean, gosalduta, burtsako akzioak gainbegiratu, bizarra egin, jantzi eta, azkenik, ohea egiten dut. Halako batean ohitu da katua. Lehen, komeriak izaten nituen ohea egiterakoan. Katuari ipurdi ganean txalo xuabe bat jo eta «segi!» esaten nion; berak atzaparra bota eta haginka egiteko imintzioa egiten zidan, baita batzuetan besoa harrapatu ere, eta oratzen badizu, ez zaitu erraz askatuko.

Aspaldion, berriz, berari begiratu ere gabe, burkoa hartu, leiho ondoko aulkian uzten dut eta bitartean bera altxatu egiten da, niri begiratu ere gabe; luzaketa batzuk egiten ditu eta ohe ertzean atzaparka hasten da. Nik ja-ta txikituko nukela pentsatzen dut eta «behera!» oihu egiten diodanean, berak «banoa, baina nahi dudalako» esaten du, azkenaldion euskara batuan eta oso argi ahoskatuta, nik euskaraz egiten baitiot beti, horretarako da euskara; kumea zela, zalan-tza egiten nuen, zerbait esaten nionean swahiliz egiten banio bezalako aurpegia egiten baitzuen nire begi-ninian bere begi-nini urdina josita.

Ohitu egin da katua eta ni gelara sartu orduko listua jariatzen hasten da, txakurren antzera, ez dakit ondo ohea egin ostean emango diodan jana edo, akaso, sumatzen didan indioilar itxura dela eta.

Joxejaimeri listua jariarazten dion estimulua, zalan-tzarik gabe, baldintzatua da. Kanpai hotsa gabe taberna jakin baten izena entzun orduko, belarriak tente jarri eta lerdea jariatzen hasiko da, Pavloven txakurrak baino joriago. Delako taberna hori ohiko berriketa lekua du haren kuadrillak, eguneroko eta betiko kon-tuak, pasadizo eta iruzkin maiztuak hizpide.

Bat-batean, ordea, emakumeen askatasunak eta segurtasunak arduratu dituzte, nonbait, «Soilik baietz da baietz» legea baitute azken garaiko gaia. Haietako inork ez du lege horren laburpenik ere irakurri, baina buruz ikasi dituzte telebistan entzun dituztenak: «Ehunka bortxatzaile libre irten dira», «askoz gehiago irtengo dira», «alarma soziala eragin du»... Beti eta beti barra atzeko neska(ren ipurdia)ri begira lerdea daria. Joxejaimek nabarmendu egiten du bere debozioa, kuadrillako batek ahapeka «hi, disimulatu pixkat, neska aztoratuta zagok eta» esaterainokoa.

Tabernako zerbitzaria egunero bezala aztoratuta ez ezik, gaur kokoteraino ere badago, horregatik fusilatu du Joxejaimen begirada batez. Joxejaimek, balen aurkako txaleko koxkaz betea jantzita, ez neskari ez atza-

Haietako inork ez du «Soilik baietz da baietz» legearen laburpenik ere irakurri, baina buruz ikasi dituzte telebistan entzun dituztenak: «Ehunka bortxatzaile libre irten dira», «alarma soziala eragin du»...

mar biko bekokia daukan inori graziarik egingo ez dion baina haren kuadrillari barrez lehertzeko modukoa iruditu zaion ateraldia bururatu zaio. Neskari, berriz, graziarik gabeko beste bat: ospa egin dezala, eta ez itzultzeko gehiago.

Joxejaimek, neskari begiratu gabe, luzaketa batzuk egin eta aterantz jo du «banoa, baina nahi dudalako» esanez, katua batuan. Haren atzetik kuadrilla osoa atera da eta taberna barruan entzuteko moduko pare bat purrustada bota ostean, hurrengo tabernarantz jarraitu dute lehengo hizpideari eutsita: «Putaseme horiek kartzela zulora sartu eta giltza itsasora botako nik nik», «ez, onena, potroak moztu eta...».



Maria Intxaustegi, Donostian. Andoni CANELLADA | FOKU



Antartikan, argazkiak egiten. Roland GOCKEL

*in*fraganti **MARIA INTXAUSTEGI**

Maria Intxaustegik eta itsasoak maitasun istorio ederra dute. Donostiarrak txikitatik izan zuen garbi itsasoa maite zuela, itsasoaz eta haren sekretuez ikasi nahi zuela, eta belaontzietan munduko itsaso gaiztoenak zeharkatu nahi zituela, lemazain. Hogeita hamalau urterekin, eta sakrifizio askoren ondoren, lortu du: belaontzi handietako espedizio gidaria da; itsas arkeologoa, itsasoak gordetzen dituen sekretuak ikertzeko, eta urpekari profesionala ere bai, itsasoan bizi diren izakiengana hurbildu eta haiek hobeto ezagutzeko.

Maria Intxaustegik ez du erreportaje hau ikusiko bi aste barrura arte. Une hauetan Antartika aldean ibiliko da, belaontzi bateko espedizio gidari. Ushuaia-tik abiatu zen otsailaren 14an (Argentina), eta ontzi barruan isolatuta bizi dira: ez dute kanpoko berririk, ezta kontakturik ere senide edo lagunekin, larrialdietarako salbu. Ez daukate internet zerbitzurik, eta egoera hori baliatuz, eurekin

bidaiatzen duten pertsonak natura eta eskualde basati hartako izakiekin, naturarekin kontaktu zuzenean jartzen saiatzen dira.

Urtean hiru bat aldiz bisitatu du Intxaustegik Antartika. Loreak bakarrik ditu ahotan paraje urrun haiek nolakoak diren galdetzen diogunean: «Izaki garela uste dut, gizaki bainoago, eta teknologiak eta asfaltoak naturatik urruntzen gaituzte. Han ez dago hirian dagoen soinua, dena entzuten da, eta teknologiarik gabe halako buruko bakea sortzen da: albatros-ak ikusten dituzu, baleak, itsas txakurrak... Han gainerako izakien parekoa zara; ez gehiago, irakatsi diguten bezala. Han gaudenean gorputzari entzuten diogula esango nuke, eta hemen, etxean, ez, soinu gehiegi dagoelako. Hemen beste izakiengan halako botere bat dugula uste dugu,

nagusi garela, baina han kontrakoa gertatzen da».

Eramaten duten jendea glaziarretan ibiltzen da, lurrera-tzeetan lagundu, eta dirutza handia edukita, edo pertsona aski ezaguna izanda ere, «berehala jabetzen dira han aberatsa edo ezaguna izateak ez duela ezertarako balio. Itsasoak berehala jartzen zaitu zeure tokian, umildu, otzandu, zazpi metroko olatua bidaliz belaontziaren aurka». Hasieran gaizki pasatzen omen dute bidaiariak, baina bukaeran itsasoarekin maiteminduta bueltatzen dira denak, «Shackleton, Amundsen, Scott eta beste itsas marinel batzuen abenturak ezagutu izan baliatuzte bezala».

Mariak berak maite du Antartikan naturarekin sortzen den harreman berezi hori: «Haizearekin bakarrik belaontzi handi batean zortzi korapiloko abiadura lor dezakezu,



Donostiarrak gidatzen duen belaontzia pinguino batzuen parean ainguratuta. Maria INTXAUSTEGI

eta hori abiadura handia da belaontzi batentzat; olatuekin adi egotea, lainoek zer dakarten zaintzea, edo gauez izar eta konstelazioei jarraituz ontzia gidatzea benetan polita da. Hori bizitzea sekulakoa da». Itsasoak eta teknologia hutsuneak tripulazioaren arteko bizikidetzan pentsaezinak diren harreman bitxiak sortzen omen dituzte: «Whatsapp pik gabe dena da posible», dio gidariak, barrez.

Itsas bidaietako espedizio gidaria izatea da Mariaren jardunetako bat. Antartikaz gain Hornos eta Esperantza Onaren lurmuturrak lotzen dituen bideta ere egiten du, 52 egunez (Txiletik Hego Afrikara). National Geographic erakundearekin ere bidaiak egiten hasiko da aurten. Apirilean Lisboatik Dublinera bitarteko joan-etorria egingo du, Bilbon eta Pasaietan geldialdiak eginez, eta maiatzean Baltiko Itsasora

joango da, erakunde berarekin, ikerketa lanak egitera.

ITSAS ARKEOLOGIAN ADITUA DA

Intxaustegi urpekari profesionala ere bada. Historia eta itsas arkeologia ikasi ditu, eta ikerkuntza ere bere pasio handietakoa da. «Itsasoa beti da ezberdina. Urpekari jardunean jabetzen zara itsasoak soinu ezberdinak sortzen dituela; arrainek nola jokatzen duten jabetzen zara. Sarri urperatuz gero, olagarroek ezagutu egi-

Urtean hiru bat aldiz bisitatzen du Maria Intxaustegik Antartika: «Han gainerako izakien parekoa zara; ez gehiago, irakatsi diguten bezala»

Floridan 1556an hondoratutako ontziak ikertuko ditu Intxaustegik udan, «nola eraiki zituzten ikertzeko eta Euskal Herrian egin zituztela frogatzeko»

ten zaituzte», dio pozarren, Donostiako Aquarium-etik gertu urperatzen denean bizi dituen esperientziak gogoan.

Iazko udan arkeologia lanean aritu zen Ozeano Atlantikoan, Islandia eta Irlanda artean kable-sarea robotekin ikuskatzen: «Ur azpitik zihoan hodi bat ikuskatu genuen. Irlandako ingurumen eta ondare legedia betetzen zela ziurtatzeko, hain zuzen ere». Oso lan teknikoa omen zen, «baina oso polita». Ironia puntu batekin bota dio mezua irakurle whatsapp zaleari: «Gure bizimodua kableek gidatzen dute, ez buru gainean ditugun sateliteek».

Lotu berri duen lanaz ere xehetasunak eman dizkigu: hitzarmena West Florida Unibertsitatearekin, Pensacola hirian (AEBak). 1556an hiri hartan Tristan de Luna nabigatzaile espainiarraren ontziteria hondoratu zen. De

Luna izan zen Floridan kokalekua egin zuen lehen pertsona: Santa Maria izenekoa. «Kokaleku hura, baina, urakan batek suntsitu zuen, baita ontziteria osoa ere; zazpi ontzi, hain zuzen. Ontzi horiek ikertu genituen 2015ean. Hiru aurkitu dituzte, eta unibertsitateari hondoratutako itsasontzi haiek Euskal Herrian egin, eraiki ziren ustea jakinarazi nien, garai hartan ontziolak gurean bakarrik zeudelako».

Intxaustegiren teoria polita zela erantzun zioten unibertsitateko kideek, baina frogatu egin behar zuela. «Nik, hori lortzeko, agiritegietako jatorrizko agiriak, paperak ikuskatu behar nituela esan nien, nire ama-hizkuntza gaztelania ere badelako, eta eurena, aldiz, ez». Estatubatuarrek egindako transkripzio batean Pedro de Andonagintza izeneko pilotua aipatzen zuten, «baina nik, eta jatorrizko agiria ikusita,

benetako izena Pedro de Andonaegi zela frogatu nuen. Hau esan nien: 'Andonaegi zen pilotu haren abizena, eta nirea Intxaustegi; azalduko dizuet euskaraz 'egi' bukaera horrek zer esanahi duen!!!'».

Hari horretatik tiraka, diru laguntza mamitsua jaso dute unibertsitatean ikerketari segida emateko, eta udan Tristan de Lunaren ontziteria ikertzeko proiektua gauzatuko du. «Oso lan polita da, bost mende atzera itsasontziak nola eraikitzen zituzten ikertzea, eta Euskal Herrian egiten zituztela frogatzea. Irrikan nago uda iristeko».

Bakarren batek pentsatuko du Intxaustegi amestutako bitzita egiten ari dela. Zuzen dabil, baina bidea ez omen da batera erraza izan: «Lan asko egin behar izan dut, eta asko ikasi. Lau hizkuntza hitz egiten ditut, itsas arkeologia eta historia ikasketak burutu, doktoretza bat, Iberoamerikako sari bat jaso nuen masterrarekin... Goi mailako kapitaina ere banaiz, liburu bat argitaratu dut aingura litikoei buruz, urpekari profesionala izan nintzen ikasketak ordaintzeko...». Hamarkada luzea pasatu du ikasten eta lanean, biak uztartuz, eta orain ari da fruituak jasotzen. Gustuko duena egiten du, «baina merezita».

Itsasoaren maitalea da Intxaustegi, baina gustura bueltatzen da etxera: bikotekidearekin babarrunak jatera, edo familia eta kuadrillarekin Donostiako Antigua auzoan poiteoan ibiltzera. «Marinelak hanka bat itsasoan izaten du beti, baina bestea lurrean, herrimina itsas-mina bezalakoa izaten baita: latza». Ordenagailu bitartez egiten den ikerkuntza ere estimatzen omen du tarteka, «etxekoen epelean».



Maria, belaontziko mastara igota.

Maria INTXAUSTEGI

PANDEMIAREN OROITZAPEN BIKAINA
Intxaustegi kapitainak jende gutxik egiten dituen gauzak egiten ditu, baina guztien artean pandemia garaian gertatutakoa oroituko du betiko. «Bark Europe» belaontzian ari zen lanean, 2020an, Ushuaian. «Antartika aldera abiatu ginen, eta Txinan sortu zen birus bati buruzko berriekin utzi genuen

Ushuaia. Arduratzeko moduko ezer ez». Hilabete pasatu eta bueltatu zirenean arma ontziak ikusi zituzten Beagle kanalean, Ushuaia atarian. Pandemia zabaldu zen munduan barrena, eta lurreratzea debekatua zuten ontziek.

«Belaontzian geundenak tripulazio profesionala ginen, bagenekien lurreratzeko mugak

aldatzen ez baziren zer gertatuko zen». Zalantza edo eztabaida handirik gabe hartu zuten erabakia: Ushuaitik abiatu ziren ontzia lurreratu zezaketen itsas portu bakarreraino, Herbehereetako Scheveningen hiria. 82 egun eta 10.000 itsas miliako bidaia izan zen. Sekulako erauntsiak eta barealdiak ezagutu zituzten, eta abentura



ikusgarri hura film labur batean islatu zuen Richard Simko ontziko tripulante eta argazkilaria: “The Voyage” izena eman zion: Bidaia.

«Ontzia etxera ekartzeko misioa genuen, eta ekarri genuen. Janaria geneukan sobera, esperientzia ere bai, eta horregatik iritsi ginen onik». Bizikidetzan ere arazo handirik gabe moldatu omen ziren, pertsona talde handiak ontzi batean hiru hilabete luze elkarrekin pasatuta ere: «Denok elkar ezagutzen genuen ondo. Kideek badakite nire txanda goizaldeko ordu bietan hasten bada, lehen ordu erdian hitzik ezin didatela esan, agian zaplazteko bat emango diedalako. Nire bitxikeria hori da; beste batzuen beste bat. Begiradarekin ere elkar ezagutzen genuen, eta bizikidetzan oso erraza izan zen. Haserreak azalekoak izan zi-

Maria Itxaustegiren bi irudi. Goikoan paisaia ikusgarriaz gozaten; behekoan, eguraldi bikainarekin, belaontzian lemazain. **UTZITAKOAK**



ren, batez ere ezin duzulako inora ihes egin, eta hobe delako ez haserretzea».

Hainbeste itsaso eta txoko ezagututa, gustukoen dituen hiru aipatzeko eskatu diogu Mariari. Honatx bere selezioa: «Polinesia frantsesa izango litzateke lehena. Ez Tahiti edo antzeko uharteak, baina

bai atoloiren bat edo beste. Asko daude, bizi ikaragarria dutenak». Zergatik, bada? «Tenperatura ona dute urte osoan, fruitu zehatz asko, arrainak, urpekaritza... Tokia paradisua da, oihana ere gertu-gertu dauka...».

Bigarrena: «Antartika, nola ez. Poloko sukarrak jotzen gai-

tuela esaten dugu gure artean, han gaudenean, edo hara joan nahi dugunean. Dauden baldintza gogorrekin hara zertara joaten zaren ere galdetzen diozu zeure buruari sarri, baina baleak, beste izakiak ikusi, ingurua zer basatia eta hauskorra den jabetu, eta galdera hori haizeak eramaten du oharkabean».

Eta hirugarrena: «Etxea, Antigua auzoko taberna bat. Kua-drillan beti elkartzen gara hor, eta han aritzen gara hitz eta pitz». Martxoan itzuliko da, taberna horretan poteo pixka bat egitera. Azkar itsasora bueltatzeko. Marinelen bizitza halakoa baita: oin bat itsasoan dutenean bestea lurrian eduki nahi dute, eta lurrian daudenean, alderantziz. Itsasoaren magia! •

Andoni URBISTONDO

bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



BACHA

Berdez inguratutako koloreen azoka

hurrengo
ostiralean
zure
kioskoan

1,50€

eta gainera...

LONDRES

UMEEK SORTURTAKO
ABENTURA

FORMENTERA

BIZIKLETENTZAT
ERE PARADISU

THAILANDIA

NEGAR EGITEN
DUEN NEGOZIOA

BACHICABO

EDERTASUNAK
EZ DU ETENIK

ELKARRIZKETA

ROCIO GANDARIAS,
BELAZ ZEELANDA BERRIRA

Begirada Nanjing-eko aranondoak, loratzen lehenak **Munduan pasieran** Siekopai, lurrik gabeko herri koloretsua, lurralde okupatuetan eskiatzea, argia eta ikatza, kontsumoari buruz hausnartzeko deia.... **Bertatik bertara** Abiatu da txotx denboraldia Euskal Herriko sagardotegietan, "Egiteke duguna" Durangoko Museoan, Musika-Música jaialdia, Bilbon... **Hiriak laburrean** São Miguel, Azoreetako altxor handiena

Kitaro Caravansary-ren erritmora

**Miren
AZKARATE
BADIOLA**

Ez dut oroitzen ostiral bat preso eta iheslarien aldeko enkarteladarik gabe Donostiako Parte Zaharrean. Ostiralero-ostiralero, beroa nahiz hotza egin, Ertzaintzaren probokazio eta kargekin, galerna sartu nahiz txingorra bota... Hantxe ateratzen zen musika berbera (Kitaro Caravansary) zeraman kotxea, atzean pankarta eta ondoren bi ilaratan hamarnaka eta ehunka herritar sorbalda gainean lagun edo senidearen argazkia zeraman kartelari helduta, ia besarkatuta.

Umetan ama eta anaiarekin oroitzen ditut ostiraletako bueltaxka horiek. Plaza Berrira iritsi eta paretaren aurka txukun-txukun jarrita zeuden kartelak banan-banan. Lehendabizi, gertuko lagun

bat bilatzen genuen; hartuta bazegoen, auzoko norbaiten irudia aukeratuko genuen, eta hori ere norbaiten eskuetan egonez gero, edozein preso politikorena hartuko genuen. Askotan, zuzenean iheslarien silueta beltza hartu izan dugu zuzenean, hormaren kontra gelditzen ziren azkenak.

Urteak aurrera, lagunekin edo auzokoekin joaten nintzen, erritual berberak eginez.

Ondoren, ni preso izanik, barreraren beste aldetik bizi izan nuen, jakinik norbaitek nire argazkia zuen kartela hartuko zuela ostiralero arratsaldeko 20.00etan.

Euskal preso politikoen kolektiboak 700dik gora preso izan zituenean ere ez

zen kartel bakar bat ere geratzen paretaren kontra. Hantxe zituen bi esku Donostiako kaleetan paseatzeko. Bere etxeratzearen aldeko aldarriekin norbait, ezaguna edo ez, berarekin gogoratzen zela adierazteko.

Orain, 34 urte luze ondoren, Donostiako Parte Zaharreko enkartelada, beste herri eta auzo askotakoa bezala, azken ostiraletan soilik egingo da. Oraindik ere ehundik gora preso eta 25 iheslari eta deportatu ditugu etxeratzerako aldarria egiteko, azkena etxera aske eta bizirik iri tsi dadin bidea ez baita amaitu.

Atzokoa berezia izan zen. Lerro hauetatik, mila esker urte hauetan guztietan ostiralero enkartelada antolatzen eta parte hartzen ibili zareten guztiei. •

Irribarria, edo telebistan ikusten ez dena

Asier AIESTARAN

Euskal Telebistako “Gure kasa” saioan gonbidatuta, Telleria anaiek Iban Mayo txirrindulari ohia elkarrizketatu zuten duela urte batzuk. Bere ibilbideari errepasoa eginez, 2003an Alpe d’Huez gainean lortu zuen Tourreko etapa garai-pen gogoangarriaren irudiak erakutsi zizkieten, ia horiek ikustean zer oroitzapen zetozkion galdetuz. Erdi serio erdi txantxetan, halaxe erantzun zuen Igorreko txapeldun handiak: «Kristoren gosea pasatzen nuela».

Izan ere, oso gutxitan ikusarazten da goi mailako kirolariaren ezkutuko sufrimendua. Aste honetan, adibidez, ki-

rol mundua aztoratu duen albistea Iker Irribarriaren agurra izan da. Harrigarria egin zaigu, aurreko larunbatean Binakako Txapelketa nagusiko partida jokatu –ongi jokatu eta irabazi– zuelako Rezustarekin Laso eta Eskirozen aurka. Eta asteartean bertan beste partida bat jokatu zuelako Tolosan.

Baina azalpena, argia, berak eman zuen: minez amaitzen zituen neurketak. «Partiden ondorengo egunean ez nauzue inork ikusi» argigarri batekin laburbildu zuen arazoa Eibarren eman zuen prentsaurrekoan. 2021eko martxoan eskuin belaunean egin zioten ebakuntzak ez du amaitu bere oinazee-

kin eta 26 urterekin utzi beharko du pilota profesionala historiako Buruz Buruko txapeldun gazteenak.

Hala ere, eta goi-mailara inguratzen den gazteak dena poza eta algara ez dela azkar antzeman ohi duen arren, kirolak badu zerbait oso erakargarria, gizakia bereziki liluratzen duena: historiara pasatu eta jendearen oroitzapenetan iltzatuta geratzea. Mayoren garaipena sekula ahaztuko ez dugun bezalaxe, Irribarriaren 2016ko sotamanoak ere ez ditugu inoiz ahantziko. Eta halaxe opa diot berari ere, bere pilotari urteak gogoratu ditzala irribarre batekin, minak erabat ahaztuta. •



AZTARNA EKOLOGIKOA

Unai Garcia Martinez Ingurumen Teknikaria

Atmosferaren berotegi-efektuko gasen kontzentrazioa da Lurraren tenperatura zehazten duen faktore nagusia (CO₂arena, nagusiki), espaziora zenbat berok ihes egiten duen arautzen delako. Gizakien eta beste bizidunen eragina alde batera utzita, CO₂ak faktore geologikoek baldintzatutako zikloa ere badu, planetaren historian zehar klima aldaketa bortitzak eragin dituena.


CO₂AREN ZIKLO GEOLOGIKOA ETA ELUR-BOLA LURRA

Bolkanismoak CO₂a emititzen du atmosferara, ur lurrunarekin erreakzionatu eta euri azido bezala erortzen dena. Lurreko silikatoek euri azidoa neutralizatzen dute. Produktua urarekin nahastu eta ozeanoetara igarotzen da, non mikroorganismo batzuek euren sostengurako metabolizatzen duten. Hiltzen direnean hondoa metatzen dira, eta ozeano-dortsaletan barrera magman sartzen dira berriro ere. Bolkanismoaren bitartez berriz ateratzen da karbonoa, zikloa itxiz.

Geologikoki horrek zehazten du atmosferaren eta ozeanoen arteko karbono dioxido oreka. Prozesuetako bat aldatzen bada, beraz, atmosferan dagoen kontzentrazioa igo edo jaitsi egiten da, planeta osoko tenperaturari eraginez. Adibidez, duela 750 milioi urte (bizitzak lurrera salto egin aurretik), plaken tektonikak Rodinia izeneko super-

360 ppm-tan jaioa

Lurraren sistemak baditu klima aldaketak eragiten dituen ziklo naturalak, planetari eta sostengatzen duen bizitzari forma eman dietenak. Hala ere, sarritan erabiltzen dira horiek gaur egun bizi dugunarekiko gizakiaren erantzukizuna arintzeko.



kontinentea eratu zuen, tropikotik aurrekoa baino hurbilago zegoena. Klima beroagoak euri-azidoaren eta silikatoen arteko erreakzio abiadura areagotu zuen, atmosferatik CO₂a erazuten duen zikloaren atala bizkortuz. Berotegi-efektuko gasaren kontzentrazioa murriztu zenez, tenperatura globala -5°Cra jaitsi eta planeta ia erabat izoztu zen hamar milioi urtez. Elur-bola Lurra izenez ezagutzen da gertakari hura.

Duela 250 milioi urte, aldiz, kontrakoa gertatu zen, dinosuroen aurretik. Kasu horretan bolkanismoak biziagotu zuen zikloaren atala. Gainontzeko prozesuek ezin izan zuten kar-

bono dioxidoa erazti isurtzen ari zen erritmo berean, eta horrek piztutako hainbat fenomeno naturalen kateketak tenperatura 10°C inguru igoaraztea eragin zuen milioi bat urteren buruan (itsas espezieen %90 eta lurarren %70 desagertu ziren).

GAUR EGUNGO SISTEMA KLIMATIKOAREN ZIKLOAK

Lurrak hamaika klima aldaketa izan ditu era naturalean eratu zenetik, gaur egun ezagutzen dugun planetari eta sostengatzen duen bizitzari forma eman dietenak. Aipatu ditugunak nabarmenak dira eskala geologikoan, oso bortitzak izan zirelako eta milioika urte iraun zutelako. Hala ere, Lurraren sistema klimatikoa osatzen duten osagaiek hamarnaka, ehunka eta milaka urteko ziklo naturalak dituzte, gaur egungo aldaketa klimatikoa aztertzeko kontuan hartu behar direnak.

Batetik, Lurraren inklinazio ardatzak 40.000 urte inguruko zikloak ditu (zenbat eta makurragoa izan, orduan eta muturreragoak dira urtarok). Gainera, ardatzak ere apur bat aldatzen du noranzkoa 26.000 urteko aldietan, 'prezesio' deritzon fenomenoan (ziba baten goiko puntak deskribatzen dituen zirkuluen antzera). Bestetik, planetak eguzkiaren inguruan marrazten duen orbita 100.000 urteko aldietan luzatu

eta laburtu egiten da, eta eguzkiaren aktibitatea ere periodikoki aldatzen da, 11 eta 350-400 urteko ziklo osagarriak deskribatuz. Era berean, Lurraren barne dinamikak sumendiak aldiro-aldiro piztu edo itzaltzea eragiten du.

Ziklo horien konbinazioak 100.000 urteko ziklo glaziar-interglaziarrek eratzen ditu Lurraren kliman (50.000 glaziazio batetik aldi interglaziarra). Gaur egun, aro interglaziarren maximora heldzen ari gara; tenperaturen maximora, hots. Hori da aldaketa klimatikoa gure erantzukizuna ez dela esateko batzuek erabiltzen duten argudioa.

AZKEN BI MILIOI URTEETAKO CO₂ KONTZENTRAZIOARIK ALTUENA

Egia da era naturalean ematen den zikloaren maximoaren inguruan gaudela, baina azken bi milioi urteetan atmosferako CO₂ kontzentrazioa 180 ppm ingurukoa izan da aro glaziarretan, eta ez da 300 ppm-tik igo tenperaturen maximoetan. Hori zen industria iraultza aurretik atmosferak zuen kontzentrazioa, erregai fosilak eskala handian emititzen hasi baino lehen. Ni 360 ppm-tan jaio nintzen. Gaur egun 419 ppm-tan gaude: azken 4,5 milioi urteetan inoiz izandako kontzentrazioari altuenean.

Komunitate zientifikoak (IPCCk) ez du tenperaturen igoeraren jatorri antropogenikoaren inguruan zalantzarik (ziurgabetasun probabilistikoa baztergarria). Baina badaezpada.

ANTIPOSTUREOA, MODAN

Argazki espontaneoak saritzen dituen BeReal aplikazioak arrakasta handia du

Egunean behin jakinarazpen bat jasotzen da, eta handik aurrera bi minutu baino ez ditu erabiltzaileak bi lenteak (aurrealdea eta atzealdea) dituen argazki bat bidaltzeko; behin eginda (baimendutako denboran), jokoan parte hartzen duten taldeki-deek bestea egiten ari denaz txutxu-mutxuka jardun dezakete lasai asko. BeReal aplikazioaren funtzionamendua da, iPhoneerako “2022. urteko aplikazioa” izendatu dutena eta Androiden erabiltzaileen gogokoena izatea lortu duena.

Aplikazioaren helburua da errealitatearen ispilu birtuala izatea eta azken urteetako estetika digital kalkulatuaren aurrean paradigma aldatzea. «Beste sare sozial batzuetako eduki edulkoratzaileekiko pizgarri bat da, Instagram bezalako plataformak betetzen dituzten irudi hiperlanduei eta errealitatearekiko oso leialak ez direnei kontrajartzen baitzaie», azaldu du Ferran Lalueza Unibersitat Oberta de Catalunya-ko Informazio eta Komunikazio Zientzietako irakaslea. Bere hazkunde izugarriak, merkaturatu zenetik %315, argi erakusten du aplikazioaren arrakasta.

«BeRealek erabiltzaileen behar bati erantzun dio, gizarte-hedabideen ekosistema batean murgilduta sentitzen baitziren, non irudi oso landua eta ukitua zen nagusi. Testuiguru horretan errealitatearen irudikapena da deigarria, naturaltasuna», dio Silvia Martinezek “Social Media: Gestion y Estrategia de la UOC” maste-rreko zuzendariak. Adibidez, Bazaarvoice plataformak hainbat herrialdeetako 9.000 per-sona baino gehiagori eginda-

📁 SAREAK / GAUR8

Egunean behin, edozein unetan, jakinarazpen bat iritsiko zaie taldekide guztiei eta bi minutu igaro aurretik nork bere argazki bat egin eta igo beharko du. BeReal aplikazioaren funtsa hori da, sinplea bezain zirrargarria. Une horretan bestea zertan dabilzan ikusteko aukera, sareetan ohikoak diren argazki landuetatik urrun.



Une jakin batean, zure lagunak non eta zertan dabilzan ikusteko eta hori komentatzeko aukera ematen du BeReal aplikazioak.
BE REAL

ko inkesta baten arabera, erabiltzaileen %31k hainbat influencer eta celebrity jarraitzen ditu, baina haiengan duten konfiantza-maila baxua da.

«BeRealen diseinuak, erabileradynamikak eta izendapenak naturaltasuna eta naturaltasuna esploratzeko apustua markatzen dute», azpimarratu du Martinezek. Hala ere, hori ez da gehiegi ustiatu sareetan azken urteotan. 2010ean, argazki-iragazkiak iritsi ziren (Valencia edo Vintage, baten bat aipatzearen) errealitatea edertzeko. Eta ondoren, 2017an, batzuek ‘Instagram aurpegiak’ deitu zutena, aurpegi-iragazki perfektuekin.

«Besteen perfekzioak sentimendu negatiboak sortzen dizkigu: inbidia, frustrazioa eta, muturrera eramanda, baita depresioa ere. Konbentzitu-ta gaude mundu guztiak duela bizitza zoragarria, guk izan ezik. Zentzu horretan, errealismo dosi batzuk nahiko suspergarriak dira, zalantzarik gabe», dio Laluezak, GAME taldeko ikertzailea ere badenak. Izan ere, 2021ean, Metaren barne-txostenak atera ziren argitara, eta Instagramek gazteen osasun mentalari eragiten ziola ohartarazi zuten, «konparazio sozial negatiboa» ahalbidetzen zuelako haien artean.

Hala ere, irudi perfektu ordenatueta ohituta dagoen erabiltzailea bizitza errealaren berezkotasuna eta errutina apreziatzeko gai izango da? «Pertsona gehienentzat egunerokoa aspergarria suertatu ohi da definizioz, baina sare sozialetan berriena egiten zaigu erakargarri, ikustera ohituta ez gauden hori», azaldu du Laluezak, eta gaineratu duenez, «hori izan da BeRealen arrakastaren gakoa».



Miren BERMEJO LLOPIS

Donostiako Informatika Fakultateko irakaslea, UPV/ EHU

«Bike Sharing»: mugikortasun jasangarria gure hirietan

Dena azkar aldatzen den garai honetan, gure kaleen itxuran ere aldaketak ikustera ohitu gara. Gure autobusari iristeko zenbat denbora falta zaion jakiteko aukera ematen diguten markesinetan dauden zutoin elektronikoak edo auto elektrikoetarako karga-unitateak dituzten aparkalekuak horren adibide dira eta ez gaitu harritzen jada bizikleta-euskarri “adimenduak” kale artean agertzeak ere.

Duela urte batzuk gure herrietako mugikortasun iraunkorra, garraioa arrazionalizatzeko orduan, udalen lehentasunetako bat izaten hasi zen. Ildo horretan, garapen jasangarriaren 11. helburuak (hiri eta komunitate jasangarriak) garraio-sistema seguru, eskuragarri, irisgarri eta iraunkorrak eskuratzeko aukera ematearen alde egiten du.

Nola ez, bizikleta edo txirringa dugu horretarako aukera ezinbestekoa. Nahiz eta aspalditik gurekin bizi izan den ibilgailua izan, haren erabilerak lotura handiagoa zuen kirolarekin. Baina gaur egun hirietan modu garbian mugitzeko aukera bihurtu da. Gainera, bizikleta motordunen gorakadak nabarmen handitu du erabilera, edozein hiritako goaldetara eroso iristeko aukera ematen baitute. Teknologia lagungarri dugu arlo honetan, bai bizikletek batera txiki bat eramatea ahalbidetuz, bai alokatutako bizikleten erabilera askoz errazagoa eginez.

Horrela, partekatutako beste mugikortasun zerbitzuen antzera, txirringen erabilera partekatua edo *bike sharing*-a, gure hirietako ohiko argazki bihurtzen ari da. Udalak eguneroko jabetzen dira sistema horrek dituen aukerez, eta gero

eta hiri gehiagok eskaintzen dute zerbitzua. Mugikortasun jasangarria bultzatzeko bere abantailak alde batera utzita ere, *bike sharing* balidabidea pertsona gehiagori txirringa gerturatzeko modu egokia da, inoiz erabili ez duen pertsonarentzat erraz probatzeko aukera ematen baitio.

Gure mugikorretan erraz deskarga ditzakegun aplikazio informatikoak erabiliz, bizikleta bat eskatzeaz gain, denbora errealean bizikleta-aparkalekuen okupazioa zein den jakin dezakegu, gertuko dugun horietako bat non dagoen edo aparkaleku jakin batek motordun bizikleta libreak dituen ere ikus dezakegu. Aplikazio horiei esker, txirringa bat hartzeko, nahikoa da gure mugikorra bizikleta-euskarri lotuta dagoen gailura gerturatzea.

Pertsona batek zerbitzu hori atzitzeko hainbat modu daude, baina, oro har, bonuak eros daitezke edo zerbitzuan alta eman eta bidaiako ordaindu. Nolanahi ere, partekatutako bizikleten erabilera merkeagoa izaten da, oro har, garraio publikoa baino. Eskaintzen duen beste abantailetako bat ondorengo da: ez duzu bizikleta mantentzeaz arduratu behar, ezta lapurretez ere, zerbitzua ematen duen enpresa arduratzen baita.


Hainbat hiri handik bertako kale enblematiko batzuetatik kotxe pribatuak kentzearen alde egin dute jada, bizikleta, patinete, taxi eta autobusetara mugatuz, eta, aldi berean, *bike sharing*-a bezalako zerbitzuak eskainiz, joan-etorriak errazteko. Hala ere, horrek beste aldea ere badu, bizikletak eta patineteak aparkatzeko lekuak eskaini behar baitira, kaleak elementu horiez betez, oinezkoentzako espazioa murriztuz eta ikusmen-kutsadura sortuz. •



Bizikleta partekatuek gero eta presentzia handiagoa dute gure hirietan. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



C. BELIAN. LE CAIRE. BAIONAKO EUSKAL MUSEOA.

EUSKAL PILOTARIAK, 1908AN KAIROKO FRONTOIAN

Euskal Herriak mundu osora esportatu du pilota, espezialitate guztietan, eta beharbada denetan ezagunena "jai alai" edo "zesta-punta" izan da. Txinak, Egiptok, AEBek, Mexikok, Kubak, Uruguai, Peruk, Kolonbiak edo Filipinek frontoiak izan dituzte, besteak beste. Dozenaka euskal pilotarik jokatu zuten arrakasta handiz frontoi horietan. Batzuk oraindik zutik daude eta beste jarduera batzuetarako erabiltzen dira. Egipton, XIX. mendearen amaieratik, Kairoko eta Alexandriako frontoietan jokatu zuen euskal pilotari talde bat egon zen. XX. mendearen hasieran, Teodoro Jauregi Markinako enpresaburu eta pilotari ohiak Egiptoko frontoien kudeaketaren ardura hartu zuen. Enpresaria eta Egiptoko euskal pilotarien taldea Shanghaira joan zen eta 1930ean Auditorium frontoia ireki zuten. 1908an Kairoko frontoian Belian argazkilariek egindako irudian pilotarietako batzuk, enpresako ordezkariak eta frontoiko langileak ageri dira.

GARA URTEKARIA 2022



Urteko gertaerarik garrantzitsuenak

● Grafikoak, kronologiak, datuak, kronikak eta irudiak
Euskaraz eta gazteleraz

● 216 orrialde, oparo irudiztatuta

Asteburu honetan!

* Erreserbatu igorri dizugun e-mailari erantzunez. Etxera bidaliko dizugu, bidalketa gasturik gabe.

A N U A R I O
2 0 2 2
U R T E K A R I A

SORIONEKU

SÍMBOLO DEL PASADO QUE HABLA AL FUTURO
GEROARI MINTZO ZAION IRAGANEKO IKURRA



GARA

*
Harpidedunentzako
eskaintza berezia:
9,50€

Soilik
12,50€

GARA

